

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko otsailaren 12a > Astelehena > III. urtea > 133. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Elkarteen
desafioa da
gizarte berrira
egokitzea,
nortasunari
uko egin barik"

Joseba
Azkarraga
Soziologoa > 06



AUTOAK

Autoen CO₂ isuria gutxitu nahi dute, baina ibarra gertu dago > 05

AZOKA

Arrasate eta inguruko 23 denda izango dira merkealdi azokan > 10

BERGARA

Lau tonatik gora produktu batu dituzte Saharara bidaltzeko > 11

ARAMAIO

Herriko hiru bertsolarik dihardute Arabako Txapelketan > 14

GIZARTEA > ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTren aldeko zein aurkako ekintzak izan dira, eta asteon jarraituko dute

PARE-PAREAN Egun beretsuetan tokatu dira Abiadura Handiko Trenaren inguruko denetariko ekintzak Debagoieneko hainbat herritan

JAURLARITZA Garraio Saileko ordezkari batzuk Aramaion izango dira gaur, astelehena, interesa duten herritar guztiei informazioa emateko

AURKA AHTren aurkako ibilaldiak izan dira aste bukaeran Debagoiengan, eta herri galdeketa inguruan berba egingo dute etzi Aramaion > 04



TRIKIMAILUA Emakume bati zer pentsatzen ari zen -argazkiak erakusten zuena ez, behintzat- asmatu zion Anthony Blake-k zapatuan Espaloian.

JOSETXO ARANTZABAL

G2a

Anthony Blakeren magia Espaloian eta elkarrizketa baten

Anthony Blake magoak ez du trikimailuen beharrik jendea bere ikuskizunetara erakartzeko. Hori frogatu zuen beste behin Elgetako Espaloia antzokian joan den zapatuan, antzokia jendez lepo egon zelako mago asturiarraren emaldia ikusteko. Eta edonor pozik uzteko modu-

ko saioa egin zuen Blake-k, ikusleak txundituta utzi zituen-eta bere magiarekin, betiere, dena norbere irudimenean dagoela ohartarazita.

Oraingoan, Anthony Blake-k berak azaldu dizkigu bere arrakastaren gakoetako batzuk, elkarrizketa zabal baten. > 23

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Bertatik bertara > 07
Iritzia > 08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-21
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-telebista > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

ETXEBIZITZA > LAGUNTZAK

Landa eremurako etxebizitza plan berria

Indarrean dago landa eremuan etxeak erosteko edo errentan hartzeko Jaurlaritzak egin duen laguntza plana. Aurten, lehen ez bezala, EAE osoan aplikatuko dituzte laguntzak. > 04

POLITIKA > EZTABAIDA

Ordainsariez jardungo dute Batzar Nagusiek

Ordainsariei eustearen alde dago Batzar Nagusietako gehiengoa. Etzi, neurria beste errepede batzuetara hedatzearen gainean hitz egingo dute; tartean, Beasain-Durango. > 05

KIROLA > GARAIPENAK

Mendi Eski Txapelketan, bi oñatiar podiumean

Arkaitz Letamendi eta Aitor Otxoa oñatiarrek 2. eta 3. egin dute, hurrenez hurren, Euskal Herriko Mendi Eski Txapelketan. Otsailaren 3an eta 4an jokatu zen Luz Ardidenen eta Gavarnien. > 15

Barruan, Bergarako eskubaloitaldearen posterra





SUPERMERKATUAK Saltoki handietan gehienek aste osorako erosketa egiten dute; baina badira astean birritan edo hilabetean behin joan eta orgatxo goraino betetzen duten bezeroak ere.

I.A.

KONTSUMOA > EROSKETA SASKIA

Oinarrizko eta beharrezko erosketa: patrikak hutsik eta saskia erdi beteta

GARESTIAGOA Adituen esanetan, Euskal Autonomia Erkidegoa da oinarrizko erosketak egiteko lurralderik garestieretarikoa bat

MARKAK 4.400 eurokoa izan daiteke, batez beste, urteko gastua, marka jakineko produktuak erosiz gero; azken aldiak aukera ekonomikoa gailentzen da

TEKNOLOGIA Eguneroko janari eta bestelako produktuei teknologiak kendu die tarte bat erosketa saskia betetzeko orduan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Zerrenda luzea gertatu eta supermerkatu handietara egiten dute ostera batzuek aste osorako behar dituzten jatekoak, garbiketa produktuak zein bestelako osagaiak erostera. Badira, etxera iritsi eta zerbaite falta zaiela ohartuta, auzoko denda txikira jotzen dutenak erosketak egitera. Baina, azken baten, eguneroko bizimoduari aurre egiteko, non edo non oinarrizko erosketak egin beharra dago; batez ere, etxeko hozkailu zein armairuak ireki eta zer janik ez dugunean.

Erosketa saskia edo karroa betetzea gero eta garestiagoa da gurean, adituen esanetan. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteak egindako azterketa baten arabera, erosketa saskirik garestiena duten hirien artean dago Donostia, eta gureko dendak eta supermerkatuak ere ez dira urrutik geratzen.

Beti ere, kontuan hartu behar da eguneroko edo asteko erosketak denda garestietan edo merkeetan egiten diren. Izan ere, urtearen amaieran, ia 630 eurokoa izan daiteke aldea.

"Produktu berbera merkeago erosteko aukera badu, bat beharrean, bezeroak gehiago hartuko ditu"

Markako produktuak aukeratu dituzten erosleek hilabetean 150 euro gehiago ordaindu behar dituzte aurrezteko aukera egiten dutenekin alderatuz gero.

BI SASKI MOTA

Azterketa egiteko, bi erosketa saski mota bereizi ditu Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteak: saski tipoa eta ekonomikoa. Tipoa, jateko eta droge-riako produktuak daude, eta jendeak prezioari erreparatu gabe gustuko dituen markekin osatzen da. Ekonomikoan, marka-

rik merkeenak daude. Azken aldiak, aukera ekonomikora lerratzen da erosleen gehiengoa. Tipoa, gastua 4.400 eurokoa da, batezbeste, eta ekonomikoa, 2.640 eurokoa. Autonomia erkidegoetako datuei erreparatu gero, EAE garestien artean dago.

Kontsumitzaileen elkarteek horrelako azterketak egiten dituzten arren, gurean zenbat gastatzen den jakin asmoz, Arrasateko Eroski hipermerkatura jo dugu, eta bertako gerente Josu Ogizak esan digu zaila dela gas-

tua kalkulatzeko: "Badira astero etortzen diren bezeroak; beste batzuek astean bi buelta egiten dituzte, eta hilabete osorako erosketak egitera etortzen direnak ere badira. Kuota bazkideak ere baditugu, kuota ordaindu eta, trukean, produktu guztietan deskontuak dituztenak. Beraz, erosketa gehienak hemen egiten dituzte. Batezbeste zenbat gastatzen den zenbatzea zaila da".

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak egindako azterketa baten arabera, prezio ezberdintasun nabarmenena arrainean dago, eta honen ostean daude frutak eta barazkiak, baita haragia ere. Drogeriako produktuetan, ezberdintasun txikiagoak dira, eta gauza bera gertatzen da enbasatutako produktuekin.

Josu Ogizaren esanetan, "gehien janaria erosten da, produktu freskoak. Aste barruan, jende askok etxetik kanpo jaten du; beraz, prestatzeko errazagoak diren gauzak jaten ditu, eta astebururako uzten dira arraina eta okela". Erraztasunera jo arren, gertatutako janariak gurean sartzen kostako dela esan digu: "Gero eta gehiago baloratzen da denbora, eta horrek eragina izango du horrelako produktuak indartzeko. Igo dira salmentak, baina ez neurri handian. Gurean, jatun onak izan gara beti, eta joera gutxiago dago horrelakoetarako".

Jendeak erosketa saskia oinarritzko produktuekin betetzen duela esan digu Eroskiko geren-

te Josu Ogizak: "Esnea, azukrea (lehen gehiago), edariak (etxe gehienetan egoten da Coca-Cola), okela, arraina, frutak, barazkiak, jogurtak, arrautzak eta ogia. Horretaz gain, etxerako gauzak eta brikolajekoak behar diren arabera erosten dira. Drogeria eta garbiketarako gauzak ere sartzen dira saskian".

MARKA ZURIA, GERO ETA GEHIAGO
Eguneroko erosketak egiterako orduan, jendeak kalitateari erreparatzen dio batez ere, baita konfiantzari ere. Batzuek konfiantza eta kalitatea marka jakinekin lotzen dituzte, baina badira marka zurikoak bezala ezagutzen ditugun produktuak aukeratzen dituztenak: "Beti egongo da mar-

ka jakinak nahi dituen jendea, baina gero eta gehiago dira Eroski produktuak erosten dituztenak. Produktu jakin batzuetan, gainera, gure markakoak jendearen gustukoak dira, eta liderra baino gehiago saltzen da; poteko tomatearekin gertatzen da hori, esaterako. Gure markaren helburua beti izan da produktua prezio eta kalitate onean ematea", esan digu Ogizak.

Eskaintza berezietan erosten diren erosten diren erosten diren die la diote aditu batzuek. Josu Ogizaren esanetan, "eskaintzen aurrean, denetarikoa joerak daude. Badago betiko gauzak erostera ohituta dagoen jendea. Lehen, eskaintzak zirela eta, egoten zen zalantzarik. Kakao-hauts eskaintzekin, esaterako, esaten zuten kakao gutxiago zuela eta txarragoa zela. Hori ez da horrela; produktua, nahiz eta merkeagoa izan, berbera da, bestela denuntzia jasotzeko arriskua legoke. Bezeroak produktu berbera prezio merkeagoan erosteko aukera badu, bat beharrez, gehiago hartuko ditu. Hala ere, gaur egun, etxeetan ez dago lehen bezalako despentsarik. Autoan etorriz gero eta aukera ikusiz gero, jendeak hartzen ditu eskaintzak, baina aparteko zoramena gabe".

EUROAREKIN, GARESTIAGO
Adituen esanetan, euroa indarrean sartu zenetik, erosketa saskiaren prezioa %31,3 igo da. Ogia, esnea edo fruta bezalako oinarritzko produktuak izan da, batez ere, igoera. KPIaren igoera, batez-

beste, %17koa izan dela kontuan hartuta, prezioen igoera askoz handiagoa da. Kontsumitzaileen ustez, prezioak borobiltzeak eta euro eta pezeten arteko okerreko ekibalentziak ekarri du igoera. Kasu batzuetan, bost pezeta bost zentimorekin ordezkatu zituzten eguneroko zenbait produkturen prezioetan. Urte amaieran jasotako hainbat datuk erakusten dute igoera handia izan dela: pataten prezioa %27 igo zen urtebetean; tomatearena, %53; esnearena, %23, eta olioarena, %58.

Josu Ogizak azaldu digunez, "gurean euroa sartu zenean hartu genuen konpromisoa produktu kopuru handi batean, sei edo zortzi hilabetetan, prezioak ez igotzeko. Gerora, igo egin dira prezioak, bai, baina ez dakit euroarengatik izan den ala ez. Dena den, janaria da gutxien igo dena".

SASKIAREN BANAKETA
Prezioak gorabehera, gastua "nahiko egonkorra da", Ogizaren esanetan: "Erosketa saskiaren konposaketa da aldatu dena. Diru kopuru bera gauza ezberdinetan gastatzen dugu; esaterako, bidaietan edo teknologian. Jan, berdin egin behar da, baina behar bada, azpizuna beharrez, xerra jango dugu. Hipermerkatuan, orain dela hamar urte, janaria proportzio handiagoan saltzen zen. Orain pixka bat txikitu da eta teknologia gehiago saltzen da.

Kontuak kontu, denok jarraituko dugu erosketak egin eta berdin edo gehiago gastatzen.

EROSKETA ARDURATSUA

> **MAIZTASUNA**

Supermerkatua astean behin baino ez joan, sarritan joaten direnek behar larririk gabe gauza gehiago erosten dituzte-eta.

> **ZERRENDA**

Erosketa zerrenda eramatea komeni da, gabe doazenez gehiago gastatzen dutelako.

> **LASAITASUNA**

Erosketak lasai eta kontzentratuta egitea komeni da, prezioak kalkulatzeko argiago izaten baita burua.

> **KALKULAGAIUA**

Batuketekin abila ez denak lagungarri izango du kalkulagailua, jakiteko erosten dituen gauzen artetik ale bakoitzak zenbat balio duen.

> **LEKU BATEAN**

Erosketak leku bakarrez egin, baldin eta prezio diferentzia oso handia ez bada. Horrela, denbora eta erregaia aurrezten dira.

> **ESKAITZAK**

Modua izanez gero, komeni da jakitea eskaintzak noiz ipiniko dituzten, eta aprobetxatzea.

> **KOKAPENA**

Supermerkatu batzuetan, preziorik onenak dituzten produktuak apal altuenetan edo behekoetan ipintzen dituzte, eta saltokiari margen handiagoa emango diotenak, erosleen begien parean. Beraz, kontuan hartu detaile hori.

> **KOPURU HANDIAK**

Prezioak interesgarriak direnean, ohiko baino kopuru handiagoa erosi, kontuan hartuta iraungitze data, etxean daukagun lekua, eta gehiago jaisteko aukera.

> **TAMAINA**

Handiena ez da zertan ekonomikoena izan behar.

> **TXARTELAK**

Bezero eta deskontu txartelak erabili, erosketak merkeagoak izan daitezten.



**Otsailaren 5etik aurrera,
Arrasaten, eta Aretxabaletako
ILE APAINDEGI BERRITUAN gaude.**

Ferrerias 35 - ARRASATE
Astelehenetan 10:00 - 19:30
Asteartetik ostiralera 09:30 - 20:00
Larunbatetan 08:00 - 14:00
Tel.: 943 77 13 78

Bainuetxe 10 - ARETXABALETA
Astelehenetan 14:30 - 19:30
Asteartetik ostegunera 09:30 - 12:30 / 14:30 - 19:30
Ostiraletan 09:30 - 20:00 - Larunbatetan 08:00 - 14:00
Tel.: 943 79 70 25

ETXEBIZITZA > LAGUNTZAK

Ibarrean ere aplikatuko da landa eremuan etxea lortzeko plana

Babestutako etxebizitzaren eskaintza landa eremura, 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietara, zabaldu nahi du Jaurlaritzak plan berriarekin

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoiengan ere aplikatuko da Eusko Jaurlaritzak landa eremuan etxeak erosteko eta alokatzeko prestatu duen Landa Etxebizitza Plana. Urtarrilaren 25az geroztik dago indarrean, eta 3.000 biztanle baino gutxiagoko herriei eragiten die. Orain arte, EAEko eremu jakin batzuetan bakarrik ematen ziren horrelako laguntzak; aurrerantzean, Antzuolan, Elgetan, Aramaion eta Gatzagan ere jaso ahal izango dira.

Nekazaritza eta Etxebizitza sailek egin dute plan hori, hiru helbururekin: herrietatik hirietara joateko joera murriztea; etxebizitza babestuaren eskaintza



GARAPENA Landa guneak eta nekazaritza garatzen lagundu nahi da Landa Etxebizitza Planarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

landa eremura egokitzea; eta nekazaritza garatzen laguntzea.

EROSI EDO ALOKATU

Legeak aukera ematen du 3.000 biztanletik beherako udaletan

etxebizitza libre erabiliak erosteko laguntzak lortzeko, 3.000 eta 33.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenendako.

Bestetik, landa ingurunean erabili gabe dauden 30 etxebizitza

publiko birgaitzeko eta alokairu sozialean jartzeko plan pilotua egingo dute; horretarako, dagokion udalarekin hitzarmena sinatu beharko du Etxebizitza sailak.

GAZTEAK > INFORMAZIOA

Irakasteko estilo berriaz jardunaldia

Unibertsitateko irakaskuntza gaitasunez jardun zuten MUN

L.K. > ARETXABALETAKO

Gaur egungo unibertsitate irakaskuntzan ezinbestekoak diren gaitasun berrien inguruko jardunaldia izan zen egubakoitzean Otolara jauregian, Mondragon Unibertsitateak Mendeberrirako proiektuaren barruan antolatuta. Carlos Monereo Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko doktoreak parte hartu zuen hitzaldi batekin.

Jardunaldia unibertsitateko irakasleei zuzenduta zegoen, eta Europan gero eta indar handiagoa duten zazpi gaitasunak landu zituen; nagusiki, taldeko lana, erabakiak hartzeko gaitasuna, komunikazioa, lidergoa, ikuspegi globala, arazoak konpontzeko gaitasuna eta ikasten ikastea. Horiekin, irakaskuntza estilo berri bat ezarri nahi da Europa osoan.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Pare-parean tokatu dira AHTren aurkako ekintza batzuk eta Jaurlaritzaren hitzaldi informatibo bat

Trenaren ibilbidea ikusteko ibilaldiak egin ditu AHT Gelditu! elkarlanak ibarrean; bestetik, Garraio saila etorriko da gaur Aramaiora

L.K. > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren inguruan denetarikoko ekintzak izan dira eta oraindik daude egunotan. Guztien helburua AHTren inguruko informazioa banatzea da, batzuek alde onak nabarmenduta, eta beste batzuek, txarrak. Aste bukaerako ekitaldi nagusia Aretxabaletako eta Aramaio AHT Gelditu! Elkarlanek antolatutako ibilaldiak izan dira. Atzo, domeka, egin zituzten. Debagoiengan ez ezik, Debabarrean eta Durangaldean ere iragarri zuten Aretxabaletakoa.

Eskoriatzako plazatik abiatuta, AHTren trazatuaren zati bat jarraitu zuten, Mazmela, Agarre eta Zarimutz auzoetan. Trena nondik pasatuko den azaltzeaz gain, zabortegeiak non ipintzeko asmoa dagoen ere azaldu zuten.

Aramaion ere, hango ibilbide zatia ikusteko ibilaldia egitekoak ziren, eta etzirako, eguaz-

tena, herri kontsultaren gaineko batzarra deitu dute, kultura etxean, 19:00etan.

PROPOSAMEN POLEMIKOA

Bestetik, Euskal Herriko AHT Gelditu! Elkarlanak salatu egin du Legebiltzarrak egubakoitzean onartu zuen PSEk aurkeztutako Legez Besteko Proposamena, AHTaren alde eta haren "aurka-

ko ETaren estrategia" baten aurka, testuak dioenez. Elkarlanak salatu du PSEk AHTren aurkako mugimendua "kriminalizatu" nahi izatea.

GARRAIO SAILA ARAMAION

Gaur, astelehena, dira Aramaiora etortzekoak Arantxa Tapia, Garraio sailburuordea; Mirari Arruabarrena, Garraio eta Azpiegituren zuzendaria; eta Jaurlaritzako teknikari bat. Udaletxean izango dira 18:30ean, proiektuaren gaineko informazioa emateko. Udalak gonbidatuta etorriko dira Aramaiora.

GARRAIO SAILEKO ORDEZKARIAK GAUR ARAMAION

Jaurlaritzarekin lehenengo herri batzarra

AHTren gaineko informazio zehatza ematea eta, une honetan, Aramaio zein fasetan dagoen azaltzea, hori da gaur Garraio Sailak Aramaion egingo duen hitzaldiaren helburua, eta horretarako antolatu du ekintza hori Aramaio Udalak. Lehenengo aldiz egingo da Aramaion Jaurlaritzako ordezkariekin herri batzarra.

Alkateak, Mertxe Mondragonek, esaten duenez, emendakinak jartzeko aukera eta epea dagoen ere jakinaraziko diete herritarrei, eta, emendakinik jarri gura izanez gero, nora eta noiz jo behar duten azalduko dute Garraio sailburuordeak eta Garraio eta Azpiegituren zuzendariak.



IBILALDIA AHTren aurkako ibilaldia Eskoriatzan.

JOSETXO ARANTZABAL



ISURIA Europako Batasuneko proposamen batek kilometroko 43 gramotan murriztu nahi du autoen CO₂ isuria.

JOSETXO ARANTZABAL

BATZAR NAGUSIAK

Beasain-Durango ordainsaria ipintzeaz

Hainbat errepide handitan ordainsaria kobratzeaz jardungo dute eguaztenean

L.K. > BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek etzi, eguaztena, eztabaidatu dute AP-1 autobidean zelako ordainsariak ezarri behar diren. Hori egingo dute Gipuzkoa osoko edukiera handiko errepideetako tarifen inguruko eztabaida orokorraren barnean. Izan ere, Batzar Nagusietako alderdi bakoitzaren jarrera ikusita, ziurra da ordainsariak kobratzen jarraituko dutela.

Ez hori bakarrik; ordainsariak beste errepide handi batzuetara zabaltzea proposatzen duen azterketa batez ere jardungo dute. Besteak beste, Beasain-Durango (GI-632) errepidean ere ordainsaria kobratzea aholkatzen du azterketa horrek.

N-1en eta Nafarroako autobidean ere ordainsaria ipintzea proposatzen da.

PP, AURKAKO BAKARRA

Ordainsariak kobratzen jarraitu behar dela defenditzen dute EAJk, PSE-EEk, EAK, Ezker Batua-Berdeek eta Aralarrek; PPK agertu du aurkako iritzi bakarra.

Eskoriatzako Fagor Ederlan lantegiak dioenez, aspaldiko ardura da ingurumenarena, eta lantegi hori orain urte batzuk hasi zen bide horretan lanean

INGURUMENA > AUTOEN KUTSADURA

Autoen CO₂ isuria gutxitu nahi duen araua ez da ezustea ibarrean

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Automobilgintzarako piezak egin dituen Fagor Ederlan lantegiak ez du ezustean harrapatu Europako Batasunaren kutsaduraren gaineko kezakak.

Ibilgailuak fabrikatzen dituzten hainbat marka eta lantegi haserre daude Bruselak egin duen arau proposamenarekin. Horren arabera, 2012tik aurrera,

gehienez ere kilometroko 120 gramo CO₂ isuri ahal izango dute ibilgailuek, gaur egungo 163 gramoak baino dezente gutxiago.

Eztabaida egunotan gertatzen ari den arren, asmo horiek aspaldikoak dira, Fagor Ederlanek dioenez, eta bide horretan lan egin hasi zen da Ederlan aspalditik. Hain zuzen, lantegi horrek inoiz baino pieza arinagoak egi-

ten ditu, autoa bera arinago izan dadin eta, ondorioz, erregai gutxiago erabil dezan, era horretara, kutsadura murriztuz.

TXIKIA BAINA ERAGINGARRIA

Autoen erosleari dagokionez, Rafa Etxabe autoetan adituak dioskunez, aldaketak ekoizle bakoitzaren arabera igarriko ditu merkatuak. "Orain 12-13 urteko

prezioan, gero eta auto hobeak daude salgai. Horregatik, marka guztiek oso inbertsio handiak egin behar dituzte oso denbora gutxian. Joera da gero eta motor txikiagoak egitea, errendimendu handiarekin eta kontsumo eta CO₂ isuri txikiagoarekin".

Gaineratzen du gutxiago kutsatzen duten erregai mota berriak ere iritsiko direla.

GIZARTEA > PARTE-HARTZEA

Gizarte Zerbitzuen lege berrirako, herritarren proposamenak batu zituen Jaurlaritzak Arrasaten

Udal Gizarte Zerbitzuetako sailak esperientzia horren oso balorazio ona egin du, herritarren parte-hartzea bultzatu duelako

L.K. > BERGARA

Ezohiko esperientzia egin zuten joan den egubakoitzean Arrasaten: Eusko Jaurlaritzak lantzen ari den lege baten gainean, herritarren ikuspuntua jasotzeko jardunaldia egin zuten. Hain zuzen, lantzen ari den Gizarte Zerbitzuen Lege berriaren gaineko jardunaldia egin zuten kultura etxean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saileko ordezkari batzuek parte hartu gura izan zuten herritarrekin; denetara, 28 bat lagun batu ziren, udal teknikari, arloko langile eta interesa zuten beste herritar batzuen artean.

Horrela, lege berrirako erakundeek eta, bestetik, herritarrek zer proposatzen duten, horixe izan zuten berbagai.

DENETARIKO JENDEA

Arrasateko Udal Gizarte Zerbitzu arduradun tekniko Iñigo Garitanoren esanetan, "oso ondo" egon zen esperientzia, eta parte-hartzea altua izan zen, jardunaldi horiek beste herri batzuetan izan duten harrerarekin alderatuta, batez ere. Denetariko jendea agertu izana eta Jaurlari-

tzak euren iritzia jakin gura izana baloratzen ditu Garitanok: "Parte-hartzeko kultura sortu behar dute erakundeek, parte-hartze hori aberasgarria dela-

ko", diosku. Gainera, aipatu behar da Arrasaten jendeak egingo proposamenak bat etorri zirela orain arte txostenak batzen dituenekin.

Norbere eskubideak, arreta pertsonala...

Lege berria egiteko urrats moduan, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluak kritika batzuk egin zizkion gaur egungo gizarte zerbitzu sistemari, eta eskaera batzuk egiten ditu: besteak beste, lege berriak norbanakoen eskubideak gehiago hartzea kontuan; arreta pertsonala eta hurbilekoa ematea; gizarte zerbitzuak hobeto koordinatu daitezela euren artean eta gizartekintza edo osasun zerbitzuekin ere; herritarrek parte hartzeko aukera handiagoa izan dezaten... Proiektu horren gaineko informazio gehiago dago www.eraiki.info webgunean.

UGARTE
AROTZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak antolatuta, 'Elkartegintzaren ajeak eta desafioak: nolako elkarte nahi dugu?' mintegia egin zuen egubakoitzean Joseba Azkarraga soziologoak. Bere esanetan, gaur egungo aldaketa sakonek aro berri baten jarri gaituzte, eta mota guztietako elkartegintzak gogoeta egin behar du bere burua berriro kokatzeko.

Joseba Azkarraga > Soziologoa eta Lankiko ikertzailea

"Elkarteen desafioa da gizarte berrira egokitzea, nortasunari uko egin barik"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Joseba Azkarraga (Abadiño, 34 urte) HUHEZIKO soziologia irakaslea eta Lankiko ikertzailea da. Lankin, autogestioaz ikertzen du, batez ere, kooperatiben alorrean. Gizarte aldaketak ezagututa, elkartegintzaren gaineko mintegia egin zuen egubakoitzean Arrasaten.

Zer dela eta mintegi hori?

Txatxilipurdi elkarte gogoeta prozesu baten dago. Gaurko gizartearen gaineko irakurketa egingo zien norbait behar zuten: gizartearen joerak, nondik gatozen, nora goazen... Etorkizunera begira, erabakiak hartzeko lagunduko zien irakurketa bat gura zuten.

Elkartegintzaren ajeak eta desafioak zen mintegiaren izenburua. Zeintzuk dira, bada, bi horiek?

Gizarte honetan, azken 15-20 urteotan, gauzak asko aldatzen ari dira, eta aldaketak sakonak dira, gizarte bizitzako eremu guztietan. Aro historiko berri baten sartzen ari gara, aurrekoaren ezaugarri oso desberdinekin. Horrek edozein gizarte eragileri eragiten dio. Hortaz, elkarteek gogoeta serioa egin behar dute, birkokatu egin behar dira. Desafio handiena da aldatzen dabilen gizarte batera egokitzea, norbere nortasunari, hautu substantzialari –kasu honetan, euskara aisialdian– uko egin barik.

Elkarteei zelan eragiten diete gizarte aldaketa horiek?

Adibidez, hiru aspektutan: noiz elkartu (uneak), non (gunek), eta zelan (moduak).

Uneei dagokionez, ekonomia globalizatu honetan, lanari sekula baino denbora eta energia gehiago eskaintzen dizkiogu. Horregatik, elkartzeko zailtasunak daude: lan bizitza antolatze-ko modu tradizionala –lineala, ordenatua...– bukatu egin da, eta, belaunaldi berrian, malgutasunak agintzen du. Denboran gero eta zailagoa da elkartzea.

Guneei begira, aisialdia gero eta gehiago, batez ere gaztetxoendako, fisikoki konpartitzen ez den lekuetan antolatzen da, hau da, elkartze birtualak egiten dira. Gaztetxoek euren beharren espresioa eta harreman gosea mundu birtual baten asetzen dituzte, gero eta gehiago. Horrek ez du esan gura elkartzeko gune lokalak desagertuko direnik, baina egia da, mundu birtualarekin,



Joseba Azkarraga, joan den egubakoitzean Arrasaten.

JOSETXO ARANTZABAL

EUSKARA

"Giza inplikazioa, etorkizunean ere, garrantzitsua izango da euskalgintzan"

beste mundu oso bat zabaldu berri dela.

Eta moduei dagokienez, lehen, elkartegintza konpromiso sendoagoez, identitate militante oso indartsuez osatzen zen. Gaur egun, konpromiso bigunagoak egiten ditugu, bizimodu indibidualistagoa edo pribatutasunera-

HERRIGINTZA

"Demokrazia parte-hartzaileago bat garatzea ezinbestekoa izango da"

ko joera handiagoa ditugulako. Elkarteekin ditugun lokarriak bigunagoak eta epe laburrerako izaten dira orain. Lehen, berriz, talde bateko partaide izateak gure identitate indibiduala goitik behera markatzen zuen lehen, eta ia-ia betirako konpromisoa zen.

IDENTITATEA

"Euskal identitatearen alorrean, erronkak herrigintzan jokatu dira nabarmen"

Kultura indibidualistago horretan, elkartegintza non geratzen da?

Elkarteek euren espazioa badute oraindik. Herri ekimenak daukan garrantzia oso handia da, eta herrigintzak badauzka bere arazoak, baina baita bere indarrak ere, eta inguruan ikus-

ten dugu jendea konektatzeko, proiektu kolektiboak sortzeko eta biltzeko gogoz dagoela. Amets kolektiboetan egoteko gogoz ikusten dugu.

Euskalgintzan zer gertatuko da, zure iritziz?

Euskararen aldeko mugimendua egitura profesionalez hornitzea inportantea izango da etorkizunean. Baina, aldi berean, ez genuke atzean utzi behar militantzia. Gizarte inplikazioa, etorkizunean ere, euskararendako oso inportantea izango da.

Euskaldunok denbora eta energia handia eman dugu utopia estatalean, eta, euskal identitatean, etorkizuneko desafioak herrigintzaren eremuan, gizarte konpromisoaren eremuan, jokatuko dira nabarmen.

Goitik etorritako erabakiei erantzuteko mugimenduan oinarritutako elkartegintzak ere etorkizuna du?

Bai, oraindik balioa du. Zer edo zer krisian egotekotan, demokrazia errepresentatiboa da. Horrekin batera, bestelako demokrazia parte-hartzaile eta zuzenago bat garatzea ezinbestekoa izango da, eta oso indartsu dator mugimendu hori: hala, aurrekontu parte-hartzaileen gaineko kezkak Porto Alegren hasi ziren garatzen. Bestelako formula batzuk ere garatuko dira. Gaur egungo egitura instituzionalak zabalik egon beharko lirake herrien parte-hartzera, eta urteetan modu zintzoan herrigintzan behar dabilen jendeari lekua utzi behar diete agintariak arlo batzuetan.

Gaztetxoek badute inplikatzeko gogo?

Nahiko irudi ezkorra dago gazteen inguruan, eta gazteek euren bideak topatu beharko dituzte euren elkartzeko une, gune eta moduak topatzeko. Gaur egungo elkarteek disposizio irekia eduki beharko lukete gazteei euren sormenetik gauzak planteatzeko lekua uzteko.

Zer egin daiteke elkarteak indarberritzeko?

Komunikazioa hobetu egin behar da bazkide eta elkarten artean, elkarte zentzuz hornitze-ko ezinbestekoa delako komunikazio fluidoa eta aberatsa. Horretarako, kanalak hobetu eta mezuak erakargarriagoak egin behar dira.

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Mendi irteera Arkamora Aloña Mendikom Oendi taldearekin

Aloña Mendiko mendi taldeak irteera antolatatu du hilaren 18rako. Arkamo mendizerrara joango dira. Irteeraren prezioa 9 euro da bazkideendako, 6 gazteendako eta 12 euro gainerakoendako. Izenemate epea otsailaren 15ean bukatuko da (Aloña Mendi tabernan).

OÑATI

> Goi mailako hezkuntza zikloak berabagaitu Txantxiku ikastolan

Arizmendi ikastolako, ETEOko eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko goi mailako hezkuntza zikloen gaineko berabaldia egongo da hilaren 14an, eguaztena, Txantxiku ikastolan. 18:30ean izango da, eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasle eta gurasoei zuzenduta dago.

DEBAGOIENA

> Sagardotegira irteera Zahar Berrirekin

Zahar Berrikoek sagardotegira irteera antolatatu dute. Otsailaren 16an joango dira Astigarragara, afaltzera. Bergarako eta Arrasateko AEKko, Udal Euskaltegiko eta Berriketan egitasmoko hainbat lagun joango dira. Horiekin guztiekin Astigarragara joan nahi izanez gero deitu

Bergarako Jardun elkartera (943 76 36 61) edo AEDra (943 71 21 17).

ARRASATE

> Abaroan egingo duten Inauteri-jairako gonbidapenak prest

Otsailaren 20an, Inauteri-martitzena, egingo dute jaia Abarakoe, 18:30ean. Jai horretan parte hartzeko gonbidapena eskuratu beharko da. Otsailaren 13ra arte emango dituzte gonbidapenok. Bazkide txartela aurkeztu beharko da.

BERGARA

> 1983an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Martxoaren 24an egingo dute bazkaria urte horretan jaiotakoek, Zabala jatetxean. Izen emateko jo Euskadiko Kutxara martxoaren 10a baino lehen. Bazkari egunerako 11:30erako egin dute hitzordua, San Martin plazan.

ESKORIATZA

> Urdelardero Eguna ospatuko dute herriko umeek eguenera Aratusteen atarian

Aratusteen hasteko, Urdelardero Eguna ospatuko dute Eskoriatzan. Goizean hasiko dira ekitaldiak ikastetxeetako umeen kalejirarekin. 11:30ean, plazan txistorra banatuko diete hurbiltzen diren guztiei. 17:00etan, Patxin eta Potxin pailazoen umeendako jaialdia egingo dute plazan, eta gero, txokolate jana egongo da (norbere edalontzia eraman behar da).

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Txikiendako ludoteka ibiltaria

Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du otsaileko zapatu guztietan Musakolako San Antolin herri eskolan. 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

BERGARA

> Angiozarko zaintza eta jangela zerbitzuaren eskaintza

Angiozar auzoko zaintzak eta jangelak zerbitzu berezia emango dute datozen egunotan: otsailaren 14an, ludoteka zabalik egongo da arratsalde, eta otsailaren 19an eta 20an, berriz, zaintza, ludoteka eta jangela goizez eta arratsaldeez egongo dira zabalik. Interesatuak deitu Guraso elkartera (943 76 16 19, 17:00etatik aurrera) edo idatzi angiozar@eskolatxikiak.org helbidera.

ARRASATE

> Kulturategiaren irekiera data atzeratuta

Gaur irekitzekoak baziren ere, Arrasateko Udaletik jakinarazi dute Kulturategiaren irekiera data atzeratuta.

ANTZUOLA

> Gozogintza ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute kultura bulegoan

Postre gozo batekin nola utzi ahozabalik zure ingurukoak delako ikastaroa antolatatu du Kultura Zerbitzuak. Otsailaren 22an hasi eta apirilaren 26an bukatuko da. Eskolak egunetan izango dira -20 ordu guztira-, 18:30etik 21:00etara, eta prezioa 20 euro da. Teoriaz gain, eskola praktikoak ere emango dituzte.

ARRASATE

> Ibai Arte dendarien elkarteak jardunaldi informatiboa deitu du

Arrasate herri bizia izenburupean jardunaldi informatiboa antolatatu du Ibai Arte dendarien elkarteak. Interesa duen guztiarendako zabalik dago eta besteak beste landuko dituzten gaiak dira: erosketak ohiturak, aisialdia, merkataritzaguneak eta Arrasate Iraunkorra. Hilaren 13an izango da, 19:30ean, Kulturategiaren etxean.

etxeko leihotik



Leire Kortabarria >

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

Ontasuna ere gogoan hartzea komeni da

Altius, citius, fortius, irakatsi zigun gure latineko irakasleak. Altuago, azkarrago, gogorrago. Gutxi aldatu dira garaiak eta mentalitateak antzinako erromatarretatik gureganaino, dimentsio handiak izan baziren haien ikurra, guretako obsesio bihurtu dira-eta. Hori ez litzateke arazoa, aipatutako kualitate horiei ontasuna gehituko balitzai.

Noan konkretura: egun arrunt bat, Gasteizera bidean. Askotan egindako bidea izanda ere, inguruneak harritu egiten nau aldi bakoitzean. Autobideko egitura erraldoiak, munstroak bezala, alde guztietan. Lanak egiten ari direnez, horren aztarnak edonon, hautsa, lokatza, makinak, zulaketak eta lur mugitua edonon. Guztion onerako dela diote, gipuzkoarren egi bihurtutako ametsa dela diote. Azkarrenak izan gura dugu, kosta ahala kosta, zertarako, zelan, zeren truke, pentsatu gabe. Bitartean, Oñatitik Arrasate erdigunera joateko, hamaika behar leku oraindik ere, eta ibarreko errepideak, petatxoak josita eta nahikoa ahaztuta. *Altius, citius eta fortius* baino, batzuek gurago dugu poliki baina *melius*, hobeto, joatea.

"Azkarrenak izan gura dugu, zertarako, zelan, zeren truke, pentsatu gabe"

> **Autoek gutxiago kutsatzea da erronka.** Guk geuk ere zerbait egin dezakegu: motorra zenbat eta txikiagoa izan, eta zenbat eta polikiago gidatu, orduan eta gutxiago kutsatuko dugu.

> **Ordainsariak ezinbestekoak direla diote.** Hala ere, doako errepide duinak are ezinbestekoagoak dira; eta bai, duinak. Errepide onak merezi ditugu denok, ez bakarrik autobidea erabili gura dutenek.

debagoiendarrak kanpoan

Johana Olabarria > Oñati

"Gernikak kostaldera mugitzeko samurtasun handiak ematen ditu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Azken bi urteetan Johana Olabarria oñatiarra Gernikan bizi da. Laguna-ekin bizi izatera joateko aukerak aztertzen hasi, eta egokiena Gernikara joatea zela erabaki zuen. Etxera, baina, sarri etortzen da, lagunengana eta familia artekoengana.

Erabaki gogorra izan zen Gernikara bizi izatera joatea?

Ez, gogorra ez zen izan. Azken finean, pertsona bat ezagutu nuen eta elkarrekin bizi izatera joatea erabaki genuen. Etxebizitzaren egoera aztertu ondoren, onena Gernikara bizi izatera joatea zela erabaki genuen. Hala, orain bi urte joan nintzen Gernikara.

Aurretik ere, ikasketak tarteko, herritik kanpoan bizi izandakoa zara, ezta?

Bai, Donostian bizi izan nintzen lau urtez, ikasten ari nintzen bitartean. Gero, baina, ikasketak amaitu nituenean, Oñatira itzuli nintzen, eta Gernikara joateko erabakia hartu bitarteko urteetan, Oñatin bizi izan nintzen; alokairuan bizi nintzen, beste lagun batzuekin.

Oñatiarra zara, Gernikan bizi zara, baina lan, berriz, Donostian egiten duzu.

Bai, Gernika, Donostia eta Oñati artean ibiltzen naiz. Gainera, beti aurrera eta atzera ibiltzen naizenez, ez dut arazorik izaten Donostiatik Oñatira joateko. Behin autoa hartu eta mugitu beharra izanez gero, berdin dit Donostiatik Oñatira mugitzea edo Donostiatik Gernikara mugitzea.



GOIENKARIA

Gizarte hezitzailea

Oñatiarra da eta 29 urte ditu. Gizarte hezitzailea da Donostian. Gernikan bizi da azken bi urteotan.

Zer dauka Gernikak Oñatik ez daukana?

Kostaldera mugitzeko samurtasuna. Oñatik, berriz, mendi ingurua dauka; desberdinak dira. Ni barrukoa naiz eta, orain arte, ez dut kostalderako joera izan, baina, Gernikan nagoenetik, kostara joateko joera handia hartu dut. Mugikortasun aldetik, samurtasun asko ematen ditu Gernikak: autobusa edo tren hartzeko aukera daukagu; Mundaka, Laida, Laga... oso gertu geratzen dira.

Eta herriko zer igartzen duzu faltan?

Dena, nire herria. Azken finean, inguru soziala, familia... hori guztia. Herrian ezagun asko ditut eta, kanpoan zaudenean, ezagun guzti horiek faltan igartzen dira.

Herrira etortzeko ohitura baduzu?

Bai, herrira agertzen naiz bisitan. Jaiak direnean, jaiak direlako, eta Gabonak direnean, Gabonak direlako. Beti dago aitzakia- ren bat herrira joan eta familia eta lagunekin egoteko.

Eta nola ikusten da Debagoienan Gernikatik?

Debagoiena MCCrekin lotzen da inguru honetan. Oñati, adibidez, mendi inguruengatik da eza-gunagoa hemen.

Eta bizkaitarrek nola hartu zaituzte?

Egia esan, ondo. Beti dago txantxetan dabilen norbait, baina, orokorrean, ondo hartu nauten. Gainera, txantxak euren artean ere egiten dituzte.

kale inkesta

Oñatiko parrokiako eraberritze lanak ordaintzeko diru laguntzarik emango duzu?



Patricia Perez
Langilea
Oñati

Egoki ikusten dut horrelako lanetarako diru aeskatzea; egokiago, oraindik, gure herriko kultur ondarea gordetzeko balio badu. Gero, norberak erabaki beharko du laguntza eman edo ez.



Jon Egaña
Langilea
Oñati

Etxean jaso dugun informazio orria oso dotorea da, baina bertan egiten zaigun eskaera ez zait ondo iruditzen. Oñatin beste hainbat eraberritze lan egin dira, eta ez da horrelako kanpainarik egin.



Paski Madrid
Langilea
Oñati

Guk laguntza emango dugu, baina oraindik ez dugu erabaki zerbatekoa izango den. Kristautasuna alde batera utzita, ikusi behar dugu Oñatiko kultur ondarea gordetzeko laguntza izango dela.



Iñigo Ezkibel
Langilea
Oñati

Herriarentzat ona izango den obra da, eta egoki ikusten dut denok laguntzea. Hala ere, Udalak eta Diputazioak diru mordera jarri dute, eta orain, gainera, gure poltsikotik ordaindu beharra larregi da.

zorroztailea



Juan Luis Azkarate

Dezibelioak aulkian

"Santa Cruz de Tenerifeko Epaitegiak jakinarazi du (...), Inauteriko jaiak modu kautelarrean bertan behera geldituko direla. (...) Jai hauek hiritarren oinarriko eskubideak bortxatzen dituztela eta hiriaren erdian zarata 55 dezibeliotik gora ezin dela inolaz ere igo onartu ondoren, autoa ezagutu da."



El Diario Vasco > 2007-02-09

Sekula ez naiz Inauterizalea izan, oso gutxitan mozturrotu naiz eta aspaldi ez ditudala Haratuzteak ospatu. Orain 25en bat urte hasi zen Haratuzteen berreskuratzea, frankismoaren garaian luzez debekaturik egon eta gero. Denboraren poderioz, hala ere, leku askotan ia obligazioz ospatzen direlakoan nago. Umeek egun horietan eskolarik ez eta zerbait ospatu beharra omen dago, zelanbait. Hiriburuetan, desfile aspergarriak edo konpartsa errebindikatiboak direla; herrietan, balore etno-antropologiko handiko maskaradak edo kartoizko sardinak direla...urtero matraka berdina.

Nobedade handiena, dena den, aurten Tenerifetik dator. Epailleek gero eta botere handiagoa dute politikaren norabidea zuzentzeko eta, ikusten denez, baita ere guztion eguneroko bizitza antolatzen. Epaille batek arrazoia eman dio Ihauterietan sortzen den gehiegizko zaratagatik kezu zen herritar talde bati eta, gauzak ez badira datozen egunetan aldatzen, Tenerifeko aurten Ihauteririk gabe geratu daitezke. Ulertzen dut bizilagunen haserrea, baina neurri hau gehiegikeria hutsa iruditzen zait. Konparazio bat egitearren, ez zaizkit gustatzen kalean kaka egiten duten txakurrak, baina horregatik ezin dut eskatu txakur guztiak kaleetatik desagertu behar direla.

Pleitoak jartzeari gustu handia hartu diogu, nonbait, eta martxa honetan Estatu Batuetan bezala bukatuko dugu; han abokatuak eta aseguru-etxeak nonahi daude eta euren boterea itzela izaten da, bizitzaren arlo guztietan.

Tenerifeko epailearen autoa aurrera irteten bada, jai asko egon daitezke hemendik aurrera kolokan, eta Euskal Herrian adi ibili beharko dugu, jai kontuetan oso zaratatsuak ohi gara-eta. Artikulu hau prestatzen ari nintzela, hain zuzen, Hernaniko Udaleko irrati-kuña bat entzun dut, honako mezu honekin: txotx garai-ko gauean, parranda giroko zaratak tabernatik kalera ez ateratzeko. Atera kontuak.

"Haratuzteak leku askotan ia obligazioz ospatzen direlakoan nago"

"Euskal Herrian jai kontuetan oso zaratatsuak ohi gara"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Zubikoako kantxa

Zubikoa kiroldegira joateko ohitura duen lagun batek esan digu kantxa "penagarri" dagoela. "Joan zen zapatuan, saskibaloi partidua ikusten izan nintzen, eta marrak apenas ikus zitezkeen", dio kirolzale honek. Proposamena egin du, orain kiroldegi berria egiten ari direnez, aprobetxa dezatela, bide batez, kantxa zaharra ere konpontzeko edo, gutxienez, margotzeko.

BERGARA

> Autoak gaizki aparkatuta

Auto gidari batek bere kexa azaldu digu, Mugertza kaletik hasi eta Masterrekara bitartean autoak gaizki aparkatuta egoten direlako. "Errepide ertzean lagatzen dituzte autoak eta, berez, bidea estua bada, bi auto gurutzatu behar direnean, zailago ipintzen dute aparkatutako autoak. Gainera, oinezkoak ere bide bazterretik ibiltzen dira, espaloitik joan beharrean", esan digu.

OÑATI

> Bidaurretan, losak solte

Oñatiar bat kezu da Bidaurretako pasealekuan lurreko losak solte daudelako. "Euria egiten duenean, busti egiten gara losa horiek zapalduz gero, eta adineko jendearendako, batik bat, arriskutsu dago trabatu eta jausteko", esan digu. Bidaurretako sarreran konpondu zituzten losak, eta besteak zergatik ez dituzten konpondu galdetu nahi dio dagokionari.

ustek uste

Irati Agirreazaldeggi

Minaren zirkoa

Zirkoa jende guztiaren bistan; pailazo, malabare joko, funanbulista... Arrasateko pistan; eta ikuskizunetik etxera iritsita bestelako zirkoa telebistan.

Minaren zirkoa edo zirkoren mina. Telebista sarritan zirko bihurtzen dela denondako baita gauza jakina, eta kateak aldatu aldatzeko egin arren ahalegina, denetan aurki dezakegu irudi bera eta minaren aurpegi berdina.

Letziaren aurpegia, eta malko garratzen egia. Malko garratzak ahizpa txikiari agur esateko bere ezusteko heriotza tarteko.

Ahizpa txikia agurtu eta ohartzeko, telebistan *Gran Hermano* eta beste hamaika halako. Irri zein malko pantaila txikian behintzat zirko itxurako ikuskizunik ez zaigu faltako.

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktorea Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldeggi, Edurne Burgaña Oinarriko diseinua Golo Arano Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazkoa Imanol Soriano, Olexi Arrieta Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
Kilometroak 07 jaiaren aldeko otarrak atera dituzte eta porra bidez zozketatuko dituzte > 11



> **OÑATI**
Kalegoieneko garajeak erosteko eskaerak aurkez daitezke martxoaren 12ra bitartean > 12



> **ARETXABALETA**
Zubia eta pasabidea eraikitzen hasi dira Belorrietan azken egunotan > 13

ARRASATE > TOKIKO EUSKARA BATUAREN GAINEKO HITZALDIA, AED-K ANTOLATUTA

Gure ezaugarriekin hornituta, euskara batua tokiko egin daiteke

EROSOTASUNA Tokira gerturatu behar da batua, jendea eroso egon dadin euskara batuarekin, kikildu barik

AITZINDARI Debarroa ingurune egokia da tokiko batuaren kontuan aitzindaritza hartzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Koldo Zuazo hizkuntzalararen hitzaldia izan zen egunean Arrasateko kultura etxe berrian. Deba ibarreko euskara izan zuen hizpide, eta tokiko euskara batuaren garrantzia azpimarratu zuen.

Tokiko euskara batua definitzeko, zera dio Koldo Zuazok: "Euskara batu orokorraren barruan, hemengo berbak sartzea da". Tokiko batuan, berbek daukate garrantzia, batik bat, Zuazoren ustez. "Arrasateko euskaltegira doan ikasle batek *takarradan* edo *arinetan* berbak jakitea garrantzitsua da eta, sarritan, horiek berbek ez dira erakusten. Beste askotan, Euskaltzaindiak aukeran utzi du bakoitzak erabiltzea leku bakoitzean bertakoa. Baina guk auto zentsura egiten dugu, eta zenbait berba edo esamolde ez ditugu erabiltzen. Esaterako, Euskaltzaindiak ez du esan *lagun biesate* gaizki dagoenik, baina guk, sarritan, *bi lagun* esaten dugu".

BATUA TOKIKOTU

Euskara batu orokorraren beharra ukatu gabe, zenbait esparrutan euskara batua tokikotatu behar litzatekeela dio: "Hedabideen kasuan, *Goienkaria*-n edo GOITBn, adibidez, nahiz eta euskara batua erabili, komeniko litzateke herrira gerturatzea, jendeak erraz ulertzeko, ez dezan pentsa euren euskara txarra denik, ez daitezen kikildu, eroso egon daitezten euskara batuarekin".

Hori gerta dadin, erantzukizuna kazetariena, irakasleena, itzultzaileena... euskararekin lan egiten duen jendearena dela esan du. "Guk egin behar genuke ahalegina euskara batua jendearengana gerturatuzko, jendeak ikusi eta sinistu dezan batua gurea ere bade-

la; ez dezala pentsa urruneko zer edo zer dela. Biztanle arruntari esan behar zaio egin dezala trankil bere berbeta, konplexu barik".

GURE IBARRA, LEKU EGOKIA

Koldo Zuazoren iritziz, gurea bailara edo ingurune interesgarria da tokiko batua erabiltzeko: "Iparraldean badago aspalditik eta, jendeak jarraitu duenez, arrakasta du. Hegoaldean ere hasi beharko ginateke. Deba ibarrean 133.000 lagun bizi gara, eta horietatik 77.000 euskaldunak gara, Ipar Euskal Herrian baino gehiago. Gainera, lantegi garrantzitsu asko daude, baita ikastetxeak ere. Beraz, bertan bizi gareno gain, egunero lanera edo ikastera etortzen den jendea ere kontuan hartuta, oso leku esanguratsua da. Hartu beharko luke aitzindaritza tokiko batuaren kontu honetan. Euskara aldetik, badago lan hori erraztuko lukeen azpiegitura: hedabideak, euskara elkarteak...".

ZABALDU BEHARREKO BERBAK

Zuazok azpimarratu du hizkuntza dela hitzuneke batak bestearekin eroso egiteko tresna, eta, bakoitza beretik abiatuta, elkar ulertzea dela kontua. "Badira herri jakin bateko berba batzuk. Gatzagan, esaterako, *arinetan* esateko *postaka* berba erabiltzen da, baina, kanpora ateratzeko, ez da egokiena. Kanpora atera behar direnak dira oso zabaldua dauden berbak. *-dako* atzizkia erabiltzen da Debarroko leku askotan, Nafarroan ere eta, Euskal Herrian, beste toki batzuetan. Beraz, esportatzeko modukoa dela esan genezake".

Euskaraz berba egin behar dugu, beraz, eguneroko jarduneko berbei lehentasuna emanez eta elkar egoki ulertuz.



EUSKARAZ LASAI Biztanle arruntak lasai egin behar luke euskaraz berba, konplexu barik.

JOSETXO ARANTZABAL

Ibarreko euskararen oinarrituz, tokiko batuaz jarduna

Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua izenburua du Koldo Zuazok Badihardugu euskara elkartearen eskutik iaz kaleratutako liburuak.

Deba ibarra eta bertako euskararen kokaguneak duen eragina; euskalkiak lantzeko eta erabiltzeko irizpideak; eta tokiko batuen adibidea plazaratzen dira lan honetan, beste alderdi batzuetako euskaldunei eredia edo, behintzat, zeri heldua eskaintzeko.

Liburuari helduleku edo oinarritzat hartuta egin zuen, hain zuzen ere, Koldo Zuazok berbaldia Arrasaten, hainbat euskaltzale entzule zituela.



Koldo Zuazo, liburu berriarekin.

LARRAITZ ZEBERIO

MERKATARITZA > MERKEALDI AZOKA

Arrasate, Aretxabaleta eta Bergarako 23 denda, merkealdi azokan

Azkenean, uste baino saltoki gehiagok eman du izena, eta batzuk kanpoan utzi behar izan dituzte, bakarrik 23rendako lekua dago-eta

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko 15 saltokik eta Aretxabaletako eta Bergarako beste zazpi saltokik eman dute izena Arrasaten egingo duten beherapenen azokan postua ipintzeko. Otsailaren 24an eta 25ean egingo dute azoka hori, Uarkape pilotalekuan.

Merkemerkaua izenarekin antolatu dute Udalak eta Ibai-Arte merkatarie elkarteak ekimena, herriko merkatariei laguntzeko. Eta hasieran ekimenak uste baino erantzun txikiagoa izan bazuen ere, oraingo astean egoerari buelta eman eta kabitzen direnak baino saltoki gehiagok jo du Udalera izena ematera.

23 SALTOKI

Edozelan ere, 23 saltokirendako lekua dago Uarkapen, eta beraz, kopuru horrek parte hartuko du azokan: "Denetariko dendak izango dira: jantzienak, oinetakoenak, ume zein helduendako; kirol dendak, altzarienak...", kontatu du Marga Garmendiak, azoka antolatzen dabilen udal teknikariak.

Haiekin batera, Monte taberna ere izango dela gaineratu du teknikariak: "Pintxoak-eta eramango ditu, eta azoka girotuko du, erosketak egiten nekatzen direnendako".

ASTEBETE LEHENAGO, KALEAN

Bestalde, jakinarazi du, baita ere, azoka baino astebete lehenago, Arrasateko alde zaharra "dekoratuko" dutela, *Merkemerkaua*-ren irudi eta logotipoarekin. "Gabonetako euskarrietan ipiniko ditugu banderatzok azokaren irudiarekin. Modu horretan iragarriko dugu, kalean, badatorrela zerbait desberdina".

Irudi horren harira, hark lotura zuzena izango du Arrasaterekin. Debagoieneko Arteman enpresak landu du: "Merkealdiak izango direla kontuan hartu dugu, eta hala, irudiak irudikatzen du produktuek -jantziak- eta -izaten duten etiketa. *Merkemerkaua* izenaren hitz jokia aprobeztatu dugu, eta Arrasateren more kolorea sartu diogu, eta herriaren dragoia ere gehitu diogu. Helburua da jendeak, irudia ikusteaz bat, identifika dezala azoka hori Arrasaterekin", azaldu du Garbiñe Beitiak, logotipoa diseinatu duen Artemaneko kideak.



IRUDIA Arrasateko dragoia eta kolore morea sartu dituzte azokaren irudian. ARTEMAN

Parte hartuko duten saltokien zerrenda

	JARDUERA	HERRIA
SUGAR	Nesken arropa	Arrasate
MABEL	Arropa eta osagarriak	Arrasate
CASA CECIAGA	Lentzeria	Arrasate
HAURTIXOA	Umeen arropa	Arrasate
GARRAXI	Gazteen arropa eta osagarriak	Arrasate
MARRUBI	Altzari eta osagarriak	Arrasate
KILI KOLO	Arropa eta osagarriak	Arrasate
TROKO BOUTIQUE	Emakumezkoen arropa	Arrasate
AMETS	Umeen arropa	Arrasate
LOS VAQUEROS	Gazteen arropa	Arrasate
FORUM ARRASATE	Kirol ekipamendua	Arrasate
LAINO	Skate, snow arropa eta osagarriak	Bergara
XUXU	Arropa eta osagarriak	Bergara
JUNBIJU	Gazteen arropa	Bergara
MAIA	Gazteen arropa	Bergara
KATIBOS	Umeen oinetakoak	Aretxabaleta
HIKA	Osagarriak	Arrasate
TOTEM	Arropa eta oinetakoak	Arrasate
MARKELIÑE	Umeen arropa eta oinetakoak	Bergara
KILIMA	Umeen eta haurdunen arropa	Aretxabaleta
OSKARBI	Oinetakoak	Arrasate
BEINKE	Arropa eta osagarriak	Arrasate
MONTE	Taberna	Arrasate



GOIENKARIA

Presoen aldeko kontzentrazioa egin zuten 84 lagunek

Seber Altube plazan 84 pertsona bildu ziren atzo kontzentrazioan, presoen borrokaldiarekin bat eginez, *Autodeterminazioa eta amnistia* lelopean. Horren aurretik, asteburu osoan, Seber Altubeko ziegan, txandakako itxialdia egin zuten. Kontzentrazio amaieran, euskal preso politikoen kolektiboak deitu duen manifestazioan parte hartzeko deia egin zuten antolatzaileek.

> EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Otsailaren 16an, egubakoitza, bukatuko da martxoaren 8rako kartel lehiaketarako epea

Hamargarren aldiz antolatu du Udalak Martxoaren 8a, edo bestela esanda, Emakumeen Nazioarteko Eguna iragarriko duen kartel lehiaketa. Hain zuzen ere, datorren asteko egubakoitzean, otsailaren 16an, bukatuko da lanak entregatzeko epea. Emakume Sailerera eraman behar dira.

Aurtengorako aukeratu duten leloa honakoa da: *Zu ere beharrezkoa zara*; modu horretan nabarmendu gura dute emakumearen partehartze soziopolitikoak duen garrantzia. Jakina, lelo hori bere baitan hartu beharko du Martxoaren 8rako kartelak. Horrez gainera, kartelak, asko jota 50x70 zentimetrotakoak izango dira. Osterantzean, erabili beharreko teknika librea da lehiaketa.

Irabazten duenarendako 900 euroko saria du Udalak.

ZERBITZUAK > IBAI-ARTE ELKARTEA

Merkataritzagunea eta beste, aztergai Ibai-Arteren eskutik

Martitzenean, jardunaldi informatiboa egingo dute, "arrasatearrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko"

U.M. > ARRASATE

Zabaletan eraiki gura duten merkataritza-gunea dela-eta, Ibai-Arte elkarteak jardunaldi informatiboa antolatu du etzitarako, martitzena. 19:30ean hasiko da, kultura etxean, eta interesa duen edozein joan daiteke.

Honako gaiak landuko dituzte: merkataritza-gunea, erosketa ohiturak, aisialdia eta Arrasate Iraunkorra. Angel Alonsok, Ibai-Arteko presidentek, eman ditu xehetasun

gehiago: "Zabaletako kontua dela-eta, promotoreak txosten bat aurkeztuko du Arrasateko datuekin, baina Ibai-Arte ez dago batere ados diotenarekin. Egin duten txostena ez da serioa, eta partidista da. Guk, martitzenean, gure datuak eramango ditugu (PERCO-Udala eta Eustat erakundeak), datu ofizialak dira gureak".

DATU ZEHATZ BARIK

Txostenean azaldu dituzten datuetako batzuk nabarmendu eta gezurtatu ditu Alonsok: "Esaterako, txosten horrek dio Arrasaten jakien gaineko 17 saltoki daudela, eta, gida eskuartean hartuta, guk 71 kontatu ditugu; diote kirol denda bakarra dagoela, eta guk zazpi kontatu ditugu; etxerako gauzen 23 denda daudela diote, eta guk 49 kontatu ditugu".



OTARRA Ainara Artola, Rosarito Labaka eta Unai Azkarate zozketatuko dituzten moduko otar batekin.

ENEKO AZKARATE

KILOMETROAK 07 > PORRA ANTOLATU DUTE

Kilometroen aldeko otarrak atera dituzte

Porra bidez zozketatuko dituzte Debagoieneko taberna eta komertzioetan bi euroren truke

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Kilometroak 07k porra antolatu du produktuez beteriko otarrak zozketatzeko. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzioetan jarriko dute porra hori bi euroren truke.

BI EUROTAN

Otarra horiek 100 zenbakiren artean zozketatuko dira. Parte hartu nahi duenak zenbaki bat edo gehiago aukeratu du, eta horren alde egiten du apustua. Bi euro balio du apustu, zenbaki, bakoitzak. Kartoia bukatzen denean, tabernariak edo dendariak zozketa egiten du, eta saskia ematen dio

irabazleari. "Aurten, laugarren urtez antolatu dugu horrelako porra bat. Debagoiengan ez ezik, Debarrean eta Gipuzkoako beste ibar batzuetan ere egingo dugu. Ez dugu kopuru zehatzik jarri, ahalik eta gehien zozketa da helburua", argitu du Ainara Artola Kilometroak ekimeneko koordinatzaile orokorrak.

LURLANEKO PRODUKTUAK

Otarra edo saski horiek Euskal Herriko produktuez beteta daude, adibidez: Jakioneko porruak, Ibarako piperminak, Arabako txakolina, euskal txerriaren urdaiazpikoa eta Tolosako teilak.

Lurlan enpresak bete ditu otar horiek euskal produktuez. "Euskal Herriko ekoizle txiki-ekin egiten dugu lan, eta euskarekin eta Kilometroak festaren filosofiarekin bat eginaz, pentsatu dugu ekimen horrekin kolaboratzea", azaldu du Rosarito Labaka Lurlaneko ordezkaririk.

Otarren porrarekin, laguntza ekonomikoa lortu nahi du Kilometroak 07 antolatzen ari den lantaldeak. "Ekonomia zati bat baino ez da, festa hori antolatzeko jorratu behar diren atal bat bakarrik. Baina hori ere egin behar da, eta ideia ona iruditu zitzaigun otarren porra egitea. Ea jendeak parte hartzen duen!", esan du Unai Azkaratek, aurtengo Kilometroak antolatzeko koordinatzaileak.

ELKARTASUNA > SAHARARA LAGUNTZA

Lau tona baino gehiago jaso dituzte Saharara bidaltzeko

Bubisher elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Sahararako laguntza eman dute herritarrei

O.E. > BERGARA

Lau tona baino gehiago material batu dituzte Bergaran Saharara bidaltzeko. Jakiak, kanpindendak, eskolako materiala eta txizoihalak batu dituzte, besteak beste. Bergaran eta ibarreko gainerako herrietan jasotako produktuak Donostiara bidali zituzten, kamioi handi baten, eta handik Saharara bidaliko dituzte hil honen 17an, zapatua.

dendei, eskolako materialagatik; Jauja kirol dendari, kanpindendak ematearren; eta DHL enpresari, paketeen garraioa ez kobratzearen. Horrez gain, herriko beste dendei ere eskertzen die emandako laguntza. Baita dirulaguntza eman dutenei ere: Udalak, 1.500 euro; Eroskik, 300 euro, eta herritarrek, 479 euro.

JAKIAK ETA BESTE

Elkartasun kanpainan eskatu zituzten jaki eta konpresaz gain, bestelako produktuak ere batu dute Bergaran, eskolako materiala eta kanpindendak, adibidez. Bubisher elkarteak eskerrak eman nahi dizkie produktu guzti horiek eman dituztenei, hala nola: Peñalba eta Garbil

Bergaratik Saharara

PRODUKTUAK	KOPURUAK
Jakiak eta konpresak	4.350 kg.
Eskolako materiala	450 kg.
Txizoihalak	3.200
Kanpindendak	40



TRAILERRA Kamioian bidali zituzten batutako produktuak Donostiara. BUBISHER

Europako urrezko zigilua jaso du Miguel Altunak

Bikaintasunaren Europako urrezko zigilua jaso du Miguel Altuna Institutuak. Urtarrilaren 25ean jaso zuen saria Miguel Altunako zuzendari Iñaki Larrañagak, Tontxu Campos Hezkuntza sailburuaren eskutik, Miramar jauregian. EFQM eredu jarraituz, kudeaketan 500 puntu baino gehiago izatea ziurtatzen du sari horrek. 2006ko urtarrean lortu zuen.



MIGUEL ALTUNA

> ERRETIRATUAK

Martxoaren 8an, sagardotegira irteera egingo dute

Urtero moduan, sagardotegira irteera egingo dute erretiratuek. San Joxepe elkarteak martxoaren 8rako antolatu du sagardotegira irteera. Aginagako sagardotegi baten izango dute bazkaria. Aurretik, bazkaldu baino lehenago, Zarautzera joango dira. Irteera 09:30ean izango da, autobus geltokitik.

Bestalde, otsailerako ere badituzte ekitaldiak antolatuta. Hil honen 20an, adibidez, Aratusteetako bazkaria egingo dute, Agorrosoingo tabernan. Bi egun geroago, 22an, bingoa izango dute San Joxepe egoitzan.

APARKALEKUAK > GARAJEEN SALMENTA

Kalegoieneko garajeak erosteko eskaerak, martxoaren 12ra arte

Udalak 89 aparkaleku salduko ditu Kalegoiena 12ko etxe berrietan

Plazak dauden bitartean interesatuek nahi adina garaje erosteko aukera izango dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Urtarrileko Osoko Bilkuran onartu zen Kalegoieneko 12. zenbakiko bigarren sotoan Udalak saltzeko dituen 89 garaje plazen zozketan parte hartu ahal izateko baldintza zerrenda.

Egubakoitzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia kaleratu ondoren, aparkalekua erosteko asmoa duten herritarrek martxoaren 12ra arteko epea dute eskaerak udaletxeko bulegoetan aurkezteko.

BALDINTZA BERRIAK

Urtarrilaren 11n egin zuen Udalak Kalegoieneko garajeen lehen zozketa. Deialdi hura garajerik ez zuten herritarrei zegoen mugatuta. Hala, 117 garajeetatik, 28 saldu ziren.

Bigarren deialdi honetan, baldintza hori ezabatu egin da. Hor-taz, beste garaje baten jabe dire-

nek ere parte har dezakete prozesu horretan. Gainera, lehen salmenta eginda, plazak salgai geratzen badira, nahi adina aparkaleku erosteko aukera onartzen da. Hori bai, garaje plaza bakoitzarako eskari bat egin behar da.

Oñatin urtebeteko antzinatez erroldatua egotea edo Kalegoien inguruan lokal komertzial baten jabe edo maizter izatea jarri da oinarrizko baldintza moduan. Baldintza horiek bete-ta, zozketan parte hartu ahal izateko, 1.800 euro aurreratu beha-ko dira; diru hori zozketarako berme modura erabiliko da.

Edozelan ere, garajea lortzen ez duten lagunei dirua itzuli egingo zaie.

TAMAINAK ETA PREZIOAK

Udalak Kalegoienean saltzeko dituen 89 garajeak, tamaina eta prezioaren arabera, lau taldetan



BERRIAK Duela gutxi amaitu dituzte Kalegoieneko etxeak.

JOSETXO ARANTZABAL

banatzen dira: 17.150 eurokoak, 17.750 eurokoak, 18.350 eurokoak eta, garestienak, 18.950 eurokoak.

Bigarren deialdiko zozketa lehenaren antzera egingo da. Zaku batetik, eskatzaileetako

baten zenbakia aterako da, eta aparkalekua hautatzeko aukera emango zaio. Aukeratuko zenbakitik aurrerako guztiek ere garajea hautatzeko bidea izango dute, plazak bukatu arte.

HAUTESKUNDEAK

Ekarpenak jasotzeko azken epea, hilaren 21a

'Zure iritzia nahi dugu' kanpaina du martxan Ezker Abertzaleak

M.B. > OÑATI

Maiatzeko hauteskundeak prestatze aldera, *Zure iritzia nahi dugu* kanpaina abian jarri du Ezker Abertzaleak. Helburua hauteskunde programa, herri-programa izatea da. Horretarako, herritarren ekarpenak eskatu ditu. Ekarpenekin egin ahal izateko, hainbat bide daude: lantaldeen bileretara joanda, Arrano tabernan jarritako kutxetan ekarpenak eginez edo, Internet bidez, www.onati.org helbidean. Edozelan ere, ekarpenak egiteko azken eguna otsailaren 21a da.

HIRU LANTALDE

Herri programaren ildoak lantzeko, hiru lantalde bereiztu dituzte: hirigintza eta nekazaritza taldea; kultura, hezkuntza, gazteri eta kirol taldea; eta emakume, ongizate eta enplegu taldea.

KIROLDEGIA > TABERNA ZERBITZUA

Zubikoa kiroldegi berriko taberna zerbitzua errentan emateko lehiaketa deialdia egin du Udalak

Udalak eta tabernaren maizter berriak, hasieran, bi urterako kontratua sinatuko dute, eta urtero luzatu ahal izango da, beste bi urtetan

M.B. > OÑATI

Kiroldegiko handitze lanak bukatu barik dauden arren, kiroldegi berriak izango duen tabernaren ustiaketa zerbitzua lehiaketara atera du Udalak. Urtarrileko Osoko Bilkuran onartu ziren alokairu lehiaketa arautuko duten baldintzak.

Hala, eskaria egiten duen enpresak antzerako lanetan duen eskarmentua, langileen euskara maila, ostalaritza arloko tituluak, zerbitzuaren antolaketa proposamena eta proposamen ekonomikoa dira gehien baloratuko direnak.

Kiroldegiko taberna berriaren errenta, gutxienez, 369 euro gehi BEZ izango da hiler. Hala-ber, taberna zerbitzua euskaraz emango dela ziurtatzeko, EGA agiria aurkezten ez duten eska-

tzaileei ahoz eta idatziz duten euskara maila neurtzeko, azterketa egingo die Udalak.

ORDUTEGIA

Kiroldegiko taberna berriak sarrera bereizita izango du. Bada, kiroldegia zabalik dagoen ordutegi eta egutegian ireki beharko ditu ateak; hau da, neguan, lane-gunetan, goizeko 07:30erako, eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, goizeko 09:00etarako. Itxiera ordua, kiroldegiko ordutegia jarraituz, gaueko 09:30 izango da.

Arrendamendu lehiaketa arautzen duen baldintza zerrendan, urteko oporraldia hartzeko eskubidea onartzen da. Hala ere, urte osoan zehar taberna zabalik edukitzeko eskaintza egitea bereziki baloratuko da. Abuztuan, gainera, ohiko taberna zer-



KIROLDEGIA Zubikoa berritzeko lanak bukatu ez diren arren, taberna lehenbailehen esleitu gura du Udalak.

JOSETXO ARANTZABAL

bitzua eskaintzeaz gain, tabernaren ardura hartzen duenak, abuztuan, pintxo eta plater konbinatuen zerbitzua ematen jarraitu beharko du.

ESKAERAK

Otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkarian deialdia kaleratu ondoren, eskaerak udaletxeko bulegoetan aurkeztu behar dira martxoaren

7a baino lehen. Hasieran, Udalak eta maizter berriak bi urterako kontratua sinatuko dute, eta urtero berritu ahal izango da, beste bi urtetan.



ZORTZI URTETARAKO Zortzi urtetarako enpresa kontratatuko dute. Orain arte, Azpeitiko enpresa bat (argazkian) ibili da. I.B.

ARETXABALETA > HERRIKO GARBIKETA LANAK

Herrian garbiketa lanak egiteko lehiaketa deitzeaz

Hainbat herritarrek garbitasunaren gaineko kexak egin dituztela eta, Udalak herrian ematen duten garbitasun zerbitzua hobetu gura du

IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA
Herriko garbiketa egiteko enpresa kontratatu gura du Udalak. Kontratazioa lehiaketa publikoaren bitartez egingo dute, eta oinarriak asteleheneko ezohiko osoko bilkuran onartu zituzten.

Helburua da egungo zerbitzua hobetzea eta, hala, herritarrei zerbitzu hobea ematea. Gaur egun, Azpeitiko enpresa batek du kale garbiketaren ardura. Azpeitiko enpresa horrek zortzi urte darma herrian lanean.

Azpeitiko enpresa horren eta Udalaren arteko kontratua amaitzera doa, hitzartutako zortzi urteak bete dituztelako.

Orain, kontratua bukatuta eta zerbitzua hobetzeko asmoarekin, lehiaketa deituko dute. Onartutako oinarriak laster argitaratuko dituzte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. 338.000 euroko aurrekontua dute zerbitzurako.

Orain, Udaleko ordezkari esanetan, azkenaldian garbiketaren gaineko kexu ugari jaso

dituzte herritarren partetik. Horregatik, Udalak berrikuntzak sartu ditu garbiketa zerbitzua- ren oinarrietan.

BALDINTZA GEHIAGO

Onartutako enpresak garbiketa egiteko material berria izan beharko du. Bestalde, Udalak enpresa horri bi zerbitzu mota ematea eskatuko dio: bata, ohi-ko lekuetan -kale, lorategi, industrialde, azoka...- garbiketa egitea; eta bestea, paperontziak garbitzea, eta, jai egun berezien ostean, herrian garbiketak egitea.

Horrez gain, urtean behin egin beharreko garbiketak ere batu dituzte: arratoi en- kontra, putzu septikoena...

ARETXABALETA > APOTZAETXEBARRIKO URBANIZAZIOA

Zubi eta pasabide bana egiten dabilta Belorrietan

Bata oinezkoendako bakarrik izango da, eta bestea, oinezkoendako eta ibilgailuendako

I.B. > ARETXABALETA

Astean lanak egiten hasi dira Belorrieta kalearen atzealdean, erreka parean, hain justu. Horretarako, garabi erraldoi bat eraman dute hara, lan horiek egiteko.

Errekaren beste aldean, Apotzaetxebarriko malda ingurunea edo 2B izeneko sektorea dago. Han egin behar duten etxebizitza kopuru handiaren lanen ondorioz, Belorrieta pareko urbanizazio zaharra zonalde batzuetan egin dute. Horregatik, Udaleko Hirigintza Sailaren asmoa da ingurunea berriro urbanizatzea.

ZUBIA ETA IGAROBIDEA

Urbanizazio lan horien barruan, egunotan zubi eta igarobide bana egiten dabilta Belo-

rrieta atzealdean: bat, zubi, oinezkoak eta ibilgailuak handik igarotzeko; eta beste bat, igarobidea, berriz, oinezkoek bakarrik erabil dezaten.

ORAINDIK EZINGO DIRA ERABILI

Egubakoitzean, zubiaren eta igarobidearen habeak jartzen ibili ziren. Horien gainean, taula aglomeratuak jarriko dituzte segidan.

Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi digu helburua dela bi pasabide horiek hilabete inguruko epean bukatuta egotea. Brues enpresa dabil lan hori egiten.

Hala ere, Hirigintzak argitu digu bi pasabide horiek ezin- go direla erabili Apotzaetxebarriko maldako urbanizazioa bukatu artean.



GARABIA Belorrieta kalearen atzealdera eraman dute garabia. JOSETXO ARANTZABAL



HERRITARRAK MOZORROTU Argazkian, iazko mozorro batzuk.

UDALA

ESKORIATZA > ARATUSTEAK

Aratusteak indartzeko zozketa egingo dute Udalak eta dendariak

Zapatuan goizetik mozorrotzen direnak dendarien eta Udalaren zozketan esku hartzeko aukera izango dute

I.B. > ESKORIATZA

Udaleko Kultura Zerbitzuak, dendarien laguntzarekin, *Goizetik gauera mozorrotuta* zozketa anto-

latu du. Zozketa horren helburua da herritarrengan Aratusteetan mozorrotzeko motibazioa piztea. Hala, hilaren 17an, zapatua, goizetik 17:00etara bitartean, herriko saltokietan eta tabernetan txartelak banatuko dituzte.

Horretarako, ezinbestekoa izango da herriko saltoki, taberna edo bestelako negozioren baten erosketaren bat edo gasturen bat egitea. Erosle edo bezeroa mozorrotuta egon beharko da, eta 16 urte baino gehiago izan beharko ditu.

Horren ostean, iluntzean, 21:00etan, zozketa egingo dute Herriko plazan. Irabazleak bi lagunendako egonaldia eskuratuko du nekazalturismo baten. Zozketan irtengo den zenbakia Udaleko webgunean eta kultura etxeko iragarki-taulan jakinaraziko dute.

MAKILLAJERAKO KARPA

Horrez gain, zapatuan, makillajeak egiteko karpa bat jarriko dute. Han bi lagun arituko dira herritarrak makillatzen.

KULTURA > ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Bost aramaioar, 07ko Arabako Bertsolari Txapelketan

Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre aramaioarrak lehiatuko dira Arabako Bertsolari Txapelketan; finalerdietako bat Aramaion jokatu dute

UBANE MADERA > ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketa datorren otsailaren 24an abiaraziko dute. Amurrión jokatu dute lehen kanporaketa, eta Manex Agirre eta Iker Agirre lehiatuko dira saio horretan.

Bigarren kanporaketan, Andere Arriolabengoa lehiatuko da. Araian jokatu dute kanporaketa hori.

Kanporaketok afalostean jokatu dituzte, 22:30ean hasita, beraz. Hala, norbait afaltzera animatzen bada, kanporaketa jokatzeko den asteko eguaztena izango da apuntatzeko azken egu-




BERTSOLARIAK Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre bertsolaria.



na. Horretarako, 945 01 05 05 telefonora deitu behar da, edo araba@bertsozale.com-era e-mail bat bidali.

Hiru lehiakide horiez gainera, beste bi aramaioarrek ere parte hartuko dute bertsolari txapelketa horretan. Biek hala biek aurkezpen lanak egingo dituzte: Lierni Altunak eta Garazi Erizek.

Horrez gainera, nabarmen-tzekoa da, lehiaketako finalaurreko bat Aramaion jokatu dute. Hitzordua da martxoaren 25ean, kultura etxean. 17:30ean hasiko da saioa. Finalari dagokionez, ohikoa den moduan, Gasteizen jokatu dute. Apirilaren 21ean izango da, Jesus Guridi auditorioan, 17:00etan hasita.



GOIENKARIA

MENDIALDEKO ERREBANTXA

Txapelketa girotzeko zapatuan Mendialdeko errebantxa izan zen Kanpezun. Iazko txapelketa eta txapeldunordea Zigor Enbeita eta Oihane Perea gainontzeko finalistekin, Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Juan Mari Juaristirekin lehiatu ziren, eta azken laukoteak irabazi zuen.

LEINTZ GATZAGA

Jolasak, poteoa eta afaria Aratusteetan

Umeendako jolasak eta antzerkia antolatu dituzte herriko gurasoek

L. KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA Gatzagarrek gertu daukate Aratuste-zapatuak egitaraua. Ohi bezala, adin guztietako herritarrendako ekin-tzak egongo dira.

Neska-mutikoendako tar-tea izango da 16:00etatik 19:00etara. Marrazkiak eta gurasoek antolatutako jolasak izango dituzte, besteak beste. Antzezlan dibertigarri bat ere ekarriko dute.

AFARIRAKO TXARTELAK

Herri poteoa egingo dute helduek –mozorrotuta, jakina–, 21:30 inguruan. Segidan, afaria egingo dute Garro jauregian. Arkumea izango da plater nagusia. Afarirako txartelak erosteko aukera dago Labidean, 10 eurotan gazteek eta 20 helduek.

ANTZUOLA > MUXIKOAK, SORGIN DANTZA ETA UMEEN SAIOA IZANGO DITUGU ZURRATEGIN

Aratusteetako domekarako dantza saioak prest dituzte Oinarin dantza taldekoek

Aratusteetako domekan, hilak 18, hainbat dantza saio izango dugu, Oinarin taldearen eta herritarren eskutik

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Oinarin dantza taldekoek urtero Aratusteetako dantza ezberdina prestatzen dute. Herritarrei parte hartzeko aukera ematen diete, gainera. Aurten, iparraldeko Muxikoak dantza aukeratu dute, eta 30 bat lagunek jardungo dute Aratusteetako domekan.

Muxikoen dantzaren berezitasuna da entseuetan hainbat urrats ikasi eta, saioan bertan, gidari lanak egiten dituenaren esanetara dantzatzeko dituztela urrats horiek. Dantzariak goitik behera zuriz jantzita eta koloretako besoko batekin azalduko zaizkigu.

KALEJIRA ETA SAIOA

Goizeko hamarretan, kalejira hasiko dute dantzariak; Muxikoen dantzariak eta sorgin-dantza egingo duten gizonetako ibi-



SORGIN DANTZA Mutil koadrila orain dela bi urteko Aratusteetan.

GOIENKARIA

liki dira kalejiran, bakoitza bere aldetik. Hartzia, tximinoa eta animalia-hezitzailea ere ibiliko dira, ohiturak agintzen duen bezala.

Gero, 12:30ean, Zurrategin elkartuko dira guztiak, dantza saioa eskaintzeko. Hantxe, umeek ere egingo dute dantza: txan-

txuak, sagar dantza, makil txiki, launakoa eta abar.

Orain dela hilabete hasi zituzten Muxikoak dantzaren entseguak; martitzenero elkartu dira ordutik, eta bihar izango dute azkena. Zapatuan, azkenik, entsegu orokorra izango dute.

ELGETA > UDAL HAUTESKUNDEAK

Ezker abertzaleak elgetarren iritzia jaso nahi du

"Udaletxe barrutik eta kanpotik lanean jarrituko" dutela jakinarazi dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Ezker abertzalea hasi da maiatzeko udal hauteskundeetara begira, eta euren egitasmoa azaldu zuten barikuan. Azken 30 urteetan Elgetako Udalean ordezkaritza izan dute, "batzuetan, batzordeak kudeatzen; bestetan, eskuinekoen egitasmoei aurre eginez", esan dute.

Ezker abertzalearen helburua herritarren parte-hartzea bultzatzea da. Beraz, galdeketa orri bat banatuko dute, elgetarren iritzia jaso eta "programa eragingarria" osatzeko; "etorkizuneko Elgeta eraikitzen denok partaide izan gaitezun", diote.

ALDERDI GUZTIEN BEHARRA

"Herri bat behar bezala aurrera eramateko, alderdi guztien lana beharrezkoa da", esan zuten agerraldian. "Orain dela lau urte, EAJk ez zuen borondaterik erakutsi udaletxean Elgeta Auzolanian ordezkaritza egoteko".



ORDEZKARIAK Ezker abertzaleko hainbat elgetar udaletxean...JOSETXO ARANTZABAL

Kirola



> **FUTBOLA**
Mondrak 1-1 berdindu zuen Berioeren aurka Atxabalpen > 18



> **ESKUBALOIA**
Gol asko sartu arren, Ford Mugarrik galdu egin zuen > 19



> **SASKIBALOIA**
Eskoriatzak erraz irabazi zuen Aloñaren aurkako partidua > 20



> **SASKIBALOIA**
Mugarri Alkesak Euskal Ligako bigarren partidua irabazi du > 20

Arkaitz Letamendi eta Aitor Otxoa, bigarren eta hirugarren sailkatu ziren txapelketan

Beteranoen artean, Joxe Mendiola oñatiarra hirugarrena izan zen

Euskal Herriko txapelketa Luz Ardidenen eta Gavarnien jokatu zen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Otsailaren 3an eta 4an jokatu zen Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketa, Luz Ardiden eta Gavarnieko eski estazioetan. 120 parte-hartzaileen artean, Izaskun Zubizarreta eta Joseba Ormazabal izan ziren onenak. Azken horrekin batera, podiumera bi oñatiar igo ziren: Arkaitz Letamendi (2.a) eta Aitor Otxoa (3.a). Txapelketa berean, baina beteranoen mailan, beste oñatiar bat hirugarren lekuan sailkatu zen: Joxe Mendiola.

Euskal Herriko txapelketa-ekin batera, Pirinioetako lasterketa garrantzitsuen ere jokatu zen: Derby 3000. Xavi Capdevilak irabazi zuen lasterketa hura.

1.500 METROKO IGOERAK

Euskal Herriko Txapelketa bi egunetan jokatu zen: otsailaren 3an, Luz Ardidenen, eta 4an, Gavarnien. Bi egunetan, 1.500 metroko igoerak egin behar izan zituzten, eta bakoitzean, 17 kilometro. Hala, azken sailkapena egiteko, bi egunetako denborak hartu ziren kontutan. Guztira, 120 eskiatzailek parte hartu zuten.

Eguraldia lagun, Luz Ardidengo eski estaziotik abiatu ziren eskiatzaileak, otsailaren 3an. Estazioan bertan osatu zuten ibilbidearen lehen zatia. Ondoren, igoera txiki bat gaindituta, 1.500 metroko igoerari egin zioten aurre. Helmugan, Capdevila eta Zubizarreta izan ziren aurrenak.

Lasterketako bigarren zatia Gavarnien egin zen, otsailaren 4an. Ibilbide hartan, parte-hartzaileek, tarte batzuetan, eskiak kendu eta kranpoiak jantzita igo zituzten 1.500 metroko maldak. Gavarnieko helmugan ere, Capdevila eta Zubizarreta iritsi ziren lehenengo.

Bi oñatiar podiumean Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketan



OÑATIARRA Argazkian Aitor Otxoa probako une batean, zaleen animuak jasotzen.

ARKAITZ LETAMENDI

POZIK EGINDAKO LANAREKIN

Elur faltagatik entrenatzeko zailtasunak izan arren, pozik amaitu zuen txapelketa Arkaitz Letamendik: "Pirinioetako goiko mendietan, elur gutxi dago. Guretzat, denboraldia nahiko zaila izaten ari da. Entrenatzeko arazoak ditugu. Proba batzuk ere bertan behere geratu dira, Espainiako Txa-

pelketa, esaterako. Edozelan ere, oso pozik nago Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketan egin dudana lanarekin", azaldu zigun oñatiarrak.

Euskal Herriko Txapelketa-ekin batera, beste bi probak osatzen dute Euskal Herri Kopa: otsailaren 25ean Astunen egingo den lasterketak, eta martxoaren

3an eta 4an, Potesen jokatu den Andres de Regil zeharkaldiak. "Ez dakigu Euskal Herria Kopako beste lasterketetan parte hartuko dugun; oraindik ez dugu pentsatu. Denboraldiko gure helburua, Aitor Otxoarena eta nirea, Pierra Mentako lasterketan parte hartzea baita", azaldu zigun Letamendik.

Martxoaren 17an eta 18an, bikoteka jokatu da aipatutako trabesia. 20 kilometroko lasterketa da, eta 2.800 metro igo behar dira. "Mendiko eskian dagoen lasterketarik gogorrena da, baina, aldi berean, politena. Azken urteotako emaitzak hobetu nahiko genituzke", azaldu digu Arkaitz Letamendik.



SENIOR MAILAKO MUTILAK, LEHENENGO TERRITORIALA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Iñaki Najera, Gorka Ugalde, Josu Agirre, Mikel Pozo, Ruben Sanchez, Jon Zangitu eta Gorka Uribe.

Beheko ilaran: Mikel Larrañaga, Josu Zabaleta, Hodei Lenisoro, Joxe Gartzia, Mikel Plazaola eta Xabier Najera. Argazkian Jon Kapelastegi, Jon Errasti, Jon Ugartetxea, Iñaki Manuel, Ioritz A...

Elkartea 06-07 (Eskubaloi saila)



GAZTE MAILAKO MUTILAK



INFANTIL MAILAKO MUTILAK



INFANTIL MAILAKO NESKAK



Agiriano, Josetxo Muniategi (entrenatzailea) eta Juan Luis Ruiz de la Cuesta (delegatua) falta dira.



López Ojeda
ARDOAK



PREFERENTE MAILA > 21. JARDUNALDIA

Oraingoz, hirugarren postuak ihes egin die arrasatearrei

MONDRA

1-1

BERIO

Mondra > Ander, Loiti, Illart, Andoni, Laspiur, Ruben, Julen, Keixi, Jon, Aranbarri (Arkaitz, 46. min.) eta Gotzon (Ekain, 72. min.).

Berio > Raul, Mikel, Iñigo, Josu, Luis (Iñaki, 57. min.), Jose, Gorka (Jon, 90. min.), Alex (Enrique, 83. min.), Arteaga, Alberto eta Xabier (Ioritz, 50. min.).

Epailea > Perez jauna. Alonso eta Arizmendi izan zituen laguntzaile lanetan. Lan txukuna egin zuen.



GOL AUKERA Julen Herizek, argazkian baloiarekin, Mondra markagailuan aurretik jartzeko aukera izan zuen. JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Mondrak hirugarren postua eskuratzeko aukera paregabea galdu zuen zapatuan, Atxabalpen, Berioaren aurka.

Norgehiagoka berdindua izan zen; biek ala biek, jokoan zeuden puntuen garrantzia kontuan hartuta, gutxi arriskatu zuten. Hasierako minutuak etxekoentzat izan ziren; hala, Berio baino gehiago izan zen Arrasateko taldea. Baloia azkar mugituz, donostiarren atean arriskuko jokaldiak sortu zituzten. Julen Herizek izan zuen partiduko lehenengo aukera, baina arrasatearrek ezin izan zuten Rubenek buruz ukitutako baloia errematatu.

Minutuak pasa ahala, Mondrak indarra galdu zuen. Etxekoak nahastu egin ziren, eta zelai erdiaren jabetza galdu zuten; hala, baloi asko galdu zituzten zelai erdian, Beriori aurrera egiteko aukera emanez.

PENALTIA HUTS EGIN

Partidua berdinketarekin iritsi zen atsedenera. Bigarren zatian, Mondrak ezkerreko hegaletik sortu zituen gol aukera politenak.

Hamargarren minutuan, Laspiurrek etxeko taldea markagailuan aurretik jartzeko aukera izan zuen. Epaileak penaltia adierazi zuen Mondraren alde, baina jokalari arrasatearrek gaizki jaurti zuen, eta baloia gora joan zitzaion.

Ondorengo jokaldian, gauzak erabat aldatu ziren etxekoentzat: Loitik area barruan baloia galdu, eta Berio lehenengo gola egitea lortu zuen. Donostiarren pozak, baina, ez zuen asko iraun, 78. minutuan, Muroak berdinketaren gola egin zuen-eta.

'MUXI'-REN ALDEKO KAMISETAK

Partidu hasieran, Mondrako jokalariek Iban Garai, *Muxi*-ren aldeko kamisetak atera zituzten.

Arrasateko jokalariek bernahezurra hautsi zuen joan zen astean eta, sendatu bitartean, ez du jokatzetik izango. Zapatuan, taldekideen elkartasuna jaso zuen arrasatearrek.



JOSETXO ARANTZABAL

Denboraz kanpo irabazi zuen Aloñak (3-2)

94. minutuan Roberto Idigorasek sartutako golari esker eskuratu zituen Aloñak hiru puntuak atzo. Lehenengo gola Iker Olaldekin egin zuen; zelai erditik falta atera, eta atezaina aurreratuta harrapatu zuen Olaldekin. Etxekoak 2-0 aurreratu ziren, baina Mutrikukoak erasora atera, eta berdintzea lortu zuten. Azkenean, etxean geratu ziren hiru puntuak.



JOSETXO ARANTZABAL

Puntu bakarra UDAk Idiazabalaren aurka

Garaipenaren gola lortzeko aukerak izan arren, UDAk berdindu egin zuen Idiazabalaren aurka: 1-1. Penalti jaurtiketa batekin aurreratu zen Idiazabalgo taldea. Bada, aldageletarako bidea hartu aurretik, berdinketa lortu zuten etxekoek Igor Arriagari esker. Bigarren zatian, partidua irabazteko gol aukera garbiak izan zituen UDAk.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	44	21
2. Hernani	38	21
3. Ordizia	35	21
4. Berio	34	21
5. Mondra	33	21
6. Anaitasuna	32	21
7. Zestoa	31	21
8. UDA	29	21
9. Touring	29	21
10. Trintxerpe	27	21
11. Aurrera	26	21
12. Aloña Mendi	26	21
13. Hondarribia	26	21
14. Pasaia	21	21
15. Idiazabal	20	21
16. Mutriku	18	21
17. Urola	16	21
18. Martutene	16	21

Emaitzak	
Hondarribia-Hernani	1-1
Ordizia-Pasaia	2-1
Aurrera-Martutene	2-0
Zestoa-Urola	3-0
Aloña Mendi-Mutriku	3-2
Zarautz-Touring	1-1
Trintxerpe-Anaitasuna	3-2
Mondra-Berio	1-1
UDA-Idiazabal	1-1

Hurrengoak	
Hondarribia-UDA	
Hernani-Ordizia	
Pasaia-Aurrera	
Martutene-Zestoa	
Urola-Aloña Mendi	
Mutriku-Zarautz	
Touring-Trintxerpe	
Anaitasuna-Mondra	
Berio-Idiazabal	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA	
Bergara-Sanpedrotarrak	3-1

BIGAREN ERREGIONALA, IGOERA	
BTLS-Urrietako	2-2
La Salle-Antzuola	0-0
Elgeta	atsedena

BIGAREN ERREGIONALA, KOPA	
UDA-Urki	0-0
Mondra	atsedena

EMAKUMEZKOAK, IGOERA	
Mondra-Zarautz	1-3
Eibartarrak-BTLS	-

EMAKUMEZKOAK, KOPA	
Urola-Aloña	2-1
Urki-UDA	-

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA	
Aloña Mendi-Beti Gazte	2-1
Martutene-Mondra	0-2
Anaitasuna-UDA	1-0

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA	
Zumaiaiko-Bergara	2-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA	
Luberri-UDA	-

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA	
Urki-Arrasate	1-4
Zarautz-Bergara	1-1
Antzuola-Zestoa	2-4

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA	
UDA Arizmendi-Real Sociedad	2-2
Bergara-Tolosa	2-1

OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA	
Arrasate-Allerru	2-1
Urola-Aloña Mendi	3-2

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA	
UDA Arizmendi-Soraluze	4-0
Bergara-Amaika Bat	1-3

EMAKUMEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA	
Zumaiaiko-Arizmendi UDA	0-0

EUSKADIKO TXAPELKETA > GOL FESTA ITURRIPEN

Gol asko sartu arren, Ford Mugarrik ez zuen Barakaldoren aurka irabazi

Arrasateko taldeak 35 gol lortu zituen zapatuan, baina ez ziren nahikoak izan Barakaldoren aurkako norgehiagoka irabazteko

FORD MUGARRI

35-36

BARAKALDO

Ford Mugarri > Igor, Asier, Jonan, Aitor (1), Eneko (4), Peio, Arkaitz, Rafa, Aitor (2), Gari (5), Andoni (13), Nestor (4) eta Iker (5).

Barakaldo > Segura, Sagasti (10), Calvo (4), Rivas (1), Ansoleaga (4), Alonso (2), Marvan (9), Martinez, Aurrekoetxea, Del Olmo (2), Ansoleaga eta Gartzia (5).

Golak bost minuturo > 3-3, 7-6, 11-9, 14-12, 17-15, 17-20. Atsedena. 18-23, 19-26, 21-28, 26-31, 30-34, 35-36.

HASIERA PAREKATUA

Orokorrean, zapatuko partidua nahiko parekatua izan zela aipatu behar da. Hasierako minutuetan, Barakaldoko taldeak agindu zuen markagailuan. Bada, zazpi-garren minutuan, lehen aldiz jarri zen aurretik Ford Mugarri: 5-4 zen orduan emaitza.

Ordutik aurrera, eta lehen zatia amaitzeko hiru minutu falta ziren arte, etxeoek menderatu zuten partidua. Tarte hartan, hiru goleko errenta izan zuten, 14-11, hain zuzen ere.

Atsedenera iritsi aurreko azken segundoetan, bigarren zatian ondorioak ekarriko zituen jokaldia egin zuen Barakaldok. Epaileek Arrasateko jokalarik bat egotzi zuten, eta penaltia adierazi zuten. Hortaz, Ford Mugarrik bi jokalarik gutxiagorekin hasi zuen bigarren zatia.

FORD MUGARRI, BIGUTXIAGOREKIN

Bi jokalarik gehiago izatea ondo baino hobeto aprobetxatu zuten bizkaitarrek markagailuan zuten errenta gehiago zabaltzeko. Barakaldoko jokalarik Sagastik kanpo-



ERASOA Bi taldeek, defentsan baino hobeto, erasoan jokatu zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

ko jaurtiketekin lortutako golei esker, 0-3ko partziala egin eta 17-23ko emaitza jarri zuen markagailuan. Bigarren zatian, Barakal-

dok zortzi goleko abantaila izan zuen: 20- 28.

Partidua amaitzeko bost minutu falta zirenean, Arrasate-

ko jokalariek presioa egin zuten kantxa osoan. Hala, markagailua itxuratzea lortu zuten, baina garaipenak ihes egin zien.

UDABERRI SARIA > GAZTE MAILAKO NESKAK

Partidu guztiak irabazita, lehenengo postuan daude Aloña Mendiko neskek

Euskadiko goren mailako partidua ez zen jokatu, Kukullaga jokalarik gutxiarekin agertu zelako

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloña Mendiko gazte mailako neskek partidurik galdu gabe jarraitzen dute. Atzo, Zubikoan, 31-27 nagusitu ziren Donostiako Bera-Bera taldearen aurka.

Partidu samurra izan zen etxeoentzat; lehia guztian, markagailuan aurretik izan ziren oñatiarrak, eta bukaeran abantaila zerbait murriztu bazen ere, zazpi goleko errenta izan zuten etxeoek partidua guztian.

Hala ere, etxeoak ez ziren oso ondo aritu defentsan. Donostiarrak Aloñaren atea zulatzeke modua aurkitu zuten, eta behin eta berriz saiatu ziren jokaldi berdina egiten. Erasoa, Ane Herrero eta Mireia Mugarri defentsa mistoa egin zieten. Hala,

momentu haietan, apur bat galduta ibili ziren etxeo neskek. Azkenean, baina, partiduko errentari eutsi eta lehia irabaztea lortu zuten oñatiarrek.

EUSKADIKO GOREN MAILA

Euskadiko goren mailako taldeak zapatuan Zubikoa kiroldegian jokatu behar zuen partidua bertan behera geratu zen. Kukullagakoak ez ziren partidua jokatzeke adina jokalarirekin etorri. Bada, partiduko bi puntuak Aloñarentzat izan ziren; federazioak gaur erabakiko du zenbat goleko aldea ezarri Aloñari.

Maitane Ruiz Aloñako entrenatzaileak esan digunez, sailkapenari begira, garrantzitsua izan da gol asko alde izatea.



ERASOAN Ane Herrero erasoan jokatzen du.

ARTXIBOA

emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGAREN MAILA NAZIONALA

Ford Mugarri-Colmec Barakaldo 35-36

EUSKADIKO GOREN MAILA

Verkol Aloña-Kukullaga 10-0

LEHENENGO TERRITORIALA

Donibane-Bergara 21-31

Arrasate-Ormaiztegi 18-24

GAZTE MUTILAK

Donibane-Aloña Mendi 17-18

Goierri-Bergara 24-33

GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA

Verkol Aloña-Bera Bera 31-27

KADETE MUTILAK

Leizaran-Aloña Mendi 28-31

Urola Lazti-Gatz Museoa Jakion 13-32

EUSKADIKO TXAPELKETA, KADETE

NESKAK

Verkol Aloña-Consulting Sociales 23-13

SENIOR MAILA > IBARREKO SASKIBALOI TALDEEN ARTEKO DERBIA

Aloña aurkari txikia izan zen Eskoriatzan

Eskoriatzarrek hasieratik kontrolatu zuten partidua; lehenengo laurdenean, 18-2 aurreratu ziren zapatuan jokaturako derbian

ESKORIATZA

65-11

ALOÑA MENDI

Eskoriatza > Calderon (5), Laborda, Gomez (4), Caceres (5), Baltzategi, Alarcia (12), Usabiaga (10), Serrano, Esposito (19), Soriano, Etxeberria (6) eta Heriz (4).

Aloña Mendi > Arregi (2), Ugarte, Losada, Maestro, Etxeberria (2), Rozas (2), Maestro, Pico (1), Artzamendi (4) eta Cruickshank.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 18-2. Bigarren laurdena: 33-3. Hirugarren laurdena: 49-7. Laugarren laurdena: 65-11.

Lehenengo minututik hartu zuen abantaila etxeko taldeak. Aparteko jokorik egin gabe, eskoriatzakoek 18-2ko partziala egin zuten lehenengo laurdenean.

Oñatiarrak, gura bai, baina ezinean aritu ziren. Oso motel jokatu zuten eta, baloia ateratzeko, huts asko egin zituzten. Hala, paseak egiterakoan, zailtasunak izan zituzten; oñatiarrek baloi asko galdu zituzten, etxekoei kontraerasoak egiteko aukerak emanaz.

PRESIOA KANTXA GUZTIAN

Markagailuan errenta handia izan arren, etxekoek lehia guztian eutsi zioten erritmoari. Kantxa guztira zabaldu zuten presioa, oñatiarrei baloia jokoan jartzeko aukerarik eman gabe.

Bigarren laurdenean, Aloñak puntu bakarra egitea lortu zuen; Ane Picok egin zuen, falta pertsonal baten ondoren. Atsedenean, beraz, 33-3 aurretik ziren etxeko neskak. Aldagelatik bueltan, markagailua txukuntzeko ahalegina egin zuten oñatiarrek, baina ahalegin hutsa besterik ez zen izan.



TAULA AZPIAN Leire Baltzategi, jaurtiketa egin berri.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Derbiak biziak eta lehia handiak izaten dira. Zapatuan, Intxaurtxueta kiroldegian, Eskoriatza eta Aloñak jokaturakoa, ordea, guztiz bestelakoa izan zen. Eskoriatzako neskek goitik behera menderatu zuten partidua; Aloña aurkari txikia izan zen etxeko taldearendako.

Bigarren zatian, Eskoriatza taula azpian jaun eta jabe izan zen. Errebotea hartzerakoan, ondo aritu ziren etxekoak. Baloia mugitzeko orduan, bizkor aritu ziren: Aloñako defentsa samur apurtu zuten eta, barneratzeen bidez, saskiratze politikak ikusi genituen.

Aloñak, berriz, taula azpira irsiteko aukerarik ere ez zuen izan. Gainera, tiro libreetan ere huts asko egin zituen.

Azkenean, 65-11 nagusitu ziren eskoriatzarrek Intxaurtxueta jokaturako ibarreko derbian.

Bi taldeen arteko aldea, markagailuan ez ezik, sailkapenean ere nabari da. Eskoriatzakoak bigarren postuan daude, liderrarengatik puntu bakarera; 14 partidu irabazi dituzte, eta bi galdu. Aloña, berriz, sailkapenean azken postuan dago, eta orain arteko partidu guztiak galdu ditu.

GIPUZKOAKO LIGA > IGOERA FASEA

Partidu borrokatua galdu egin zuen Aloña Mendik

Haurtzaroren aurka galdu zuen senior mailako taldeak: 70-79

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gipuzkoako Txapelketako igoeira faseko zazpigarren jardunaldiari zegokion partidua jokatu zuten zapatuan Aloña Mendik eta Oiartzungo Haurtzarok.

Partidua hasi aurretik Aloña Mendiko entrenatzaileak, Gorka Judezek, norgehiagoka gogorra eta borrokatua izango zela aurreratu zuen, eta hala gertatu zen azkenean.

ALOÑAK, ABANTAILA BAKARRA

Zapatukoa lehia parekatua izan arren, Haurtzaro taldea izan zen partidua osoan markagailua menderatu zuena, lehen saskiratzean abantaila hartu eta bukaerara arte mantendu zuen-eta.

Aloña Mendiko senior mailako taldeak behin bakarrik izan zuen abantaila zapatuan, bigarren laurdenean hasieran, 8-0ko partziala egin eta gero: 22-21. Edozelan ere, Oiartzungo taldeak berehala hartu zuen errenta markagailuan: 26-32. Hura izan zen, hain justu, bigarren tarteko errentarik handiena.

Hirugarren laurdenean, Haurtzarok, errenta lau-bost puntutan



JOKALDIA Aloñako jokalaria Eneko, barneratzea egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

eduki zuen. Hortaz, partidua azken tartean erabaki zen.

Laugarren tartean, markagailuak 60-63 erakusten zuela, Aloñak partidua berdintzeko aukera izan zuen hiruko jaurtiketa batean.

Bada, huts egin ondoren, Haurtzarok hamar puntuko tartea zabaldu zuen: 65-75. Une hartan, Aloñako entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen, baina partidua Haurtzarok irabazi zuen.

EUKAL LIGA > GAZTEAK

Bigarren garaipena Mugarrik

TABIRAKO

72-83

MUGARRI ALKESA

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Hasiera ezin hobea eman dio Mugarri Alkesako gazte mailako taldeak Euskal Ligari. Baskonia taldea menderatu ostean, zapatuan bigarren garaipena eskuratu zuen Durangon jokaturako norgehiagokan.

PARTIDU ZAILA

Tabirakoren aurkako lehia izango zela bazekiten Arrasatekoek. Bada, asko zaildu zen epaileen lehen tartean egindako lanarekin. Izan ere, tarte hartan, epaileek bi falta tekniko adierazi zituzten etxekoek alde.

Lehenengo laurdenean, Mugarri Alkesa izan zen hobea: 19-24. Bada, bigarrenan, etxeko taldeak, 10-0ko partzialari esker, buelta eman zion markagailuari.

Atsedenean entrenatzaileen aholkuak entzun ondoren, beste behin, bikain jokatu zuten arrasatearrek. 2-13ko partziala eginez, bederatzi puntuko abantailarekin iritsi ziren azken tartean hasierara: 58-67. Laugarrenaren hasierako beste partzial bati esker, Mugarri Alkesak 15 puntuko tartea izan zuen.

emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MUTILAK

Candy	atsedena
Gabi Jatetxea-Ointxe Arrasate	67-43
Aloña Mendi-Haurtzaro	70-79

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Aloña Mendi	65-11
------------------------	-------

GAZTE MUTILAK,

EUSKADIKO TXAPELKETA

Tabirako Baque-Mugarri Alkesa	72-83
-------------------------------	-------

GAZTE MUTILAK

STL Azkue-Aloña Mendi	57-54
-----------------------	-------

GAZTE NESKAK

Goierri Irizar-Eskoriatza	24-61
---------------------------	-------

KADETE MUTILAK

Easo Basoa-Ford Mugarri	24-137
-------------------------	--------

Goierri-Bergara	103-56
-----------------	--------

Easo Ibaia-Aloña Mendi	134-27
------------------------	--------

LEINTZ BAILARA

Lagun giroa eta futbola izan ziren nagusi Ibarako zelaian zapatu goizean

FUTBOLA Umeek gustukoak duten kirolean jokatzeko disfrutatu zuten goiza, eta baita partidak ikustera hurbildu zirenek ere

GOLAK Golekin ere gozatu ahal izan zuten Ibarra joandako ikusleek, bi partiduetan ikusi ahal izan ziren golak ez baitziren gutxi izan

EMAITZA, GUTXIENGOA Norgehiagokak bukatu eta lehenago arerioak izandakoek eskua eman eta elkarrekin irten ziren zelaitik

KOLDO CARRILLO > ARETXABALETAKO

Zapatuan, goizeko 09:30ean, eskola kiroleko zortzi futbol norgehiagoka izan ziren Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. Giro epel eta polita zen bertan, umeak indar guztiak zelaian uzteko gogoekin zeuden, eta ondo aprobetxatutako goiza izan zen azkenean.

Bi partidu ziren jokatzekoak: Gazteluondo 5 eta Kurtzebarriren artekoa, eta Arrasate Herri Eskola 5 eta Almen 6 taldeen artekoa. Indarrak neurtzen lehenak Gazteluondo 5 eta Kurtzebarri- Aramaio taldeak izan ziren, eta partidu parekatu batean, lehenak nagusitu ziren, 2-1eko emaitzarekin. Gazteluondo 5 taldeak, azken momentuan, partidua bukatzeaz zela, sartu zuen bigarren gola, eta garaipena erdietsi zuten horri esker. Ostean, goizerako iragarritako zegoen bigarren partidua hasi zen, Arrasate Herri Eskola eta Almen 6 taldeen artekoa. Bertan, azken talde hau argitasunez nagusitu zen 7-1 goleko emaitzarekin. Nagusi izan zen Almen taldea, baina Arrasate Herri Eskolak bere aukerak ere izan zituen eta, amaieran, gol bat sartu ahal izan zuten.

Umeak, emaitzarekin ez, bai zik eta euren kirol gogokoena-rekin gozatzeaz arduratu ziren nagusiki. Ez ziren gutxi izan umeak jokatzeko ikustera hurbildu ziren gurasoak ere, eta umei ez zitzaizkien animuak falta izan goiz osoan zehar. Bukatzean, irabazi ala galdu, bostekoa eman zioten elkarri guztiak eta batera irten ziren zelaitik.



Kurtzebarri- Aramaio. Ekaitz, Samuel, Aimar, Jose, Omar, Ander, Oier, Markel, Igor, Markel, Ioritz, Joseba eta Jokin agertzen dira argazkian.



Gazteluondo 5. Ander G., Martxel, Aritz, Iñigo, Andoni, Eneko, Oier, Markel, Iker, Josu Azkarate, Mikel, Ander Z., Josu Arantzabal eta Jon agertzen dira argazkian.




Arrasate Herri Eskola 5. Unaik, Felipek, Ikerrek, Davidek, Istarrek, Ionek, Josebak, Martinek eta Andonik osatutako taldea.



Almen 6. Unai, Diego, Pablo, Eneko, Xabi, Jabi, Eñaut, Julen eta Ibai agertzen dira argazkian.

GARBI JOKATZEN DUZUE?



Oier eta Iker
Gazteluondo 5

"Nahiko garbi jokatzeko dugu", dio bikoite honek eta, hauen iritziz, gutxitan gertatzen da gauza zatarrik. "Batzuetan, beharbada, ostikoren bat edo...", gaineratzen du Oierrek, "baina lagun artean gabilta, eta giro ona izaten da gehien-gehienetan."



Jose eta Oier
Kurtzebarri- Aramaio

Hauen iritziz, joko garbia ikusten da zelaian. "Gol bat sartzeko aukera badut, baina, agian, hanka gehiagotxo luza dezaket...", bat datoz biak. Orokorrean, ez dela inongo arazorik izaten esaten dute Joseba eta Oierrek; "monitoreek errieta egiten digute gainera..."



Diego eta Pablo
Almen 6

Joko zikina edo istiluak gutxi-gutxitan gertatzen direla diote Diegok eta Pablok, "baina, gertatzen direnean, nahiko gogor-rrak dira". Dena dela ere, "monitoreek garbi jokatzeko esaten digute beti, eta beste taldeko jokariak errespetatze-ko", esaten dute.



Martin
Arrasate Herri Eskola 5

"Nik ez ditut kideak jotzen", esaten du Martinek, berak, kideak beharrean, baloia jotzen duela hankarekin. "Giro jatorra izaten dugu hemen, lagunartean pozik ibiltzen gara jokoan", gaineratzen du jokariak.



Josu
Gazteluondo 5

Orokorrean, joko garbia ikusten dela esaten du Josuk. "Gainera, hemen ia guztiok elkar ezagutzen dugu, eta giro onean gabilta. Sekula izaten da sarrera itsusirik, baina oso gutxitan gertatzen da, eta ez zaigu gustatzen".



Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean zozketatu ditugun
Realeko 10 txaleko eta 10 motxilen irabazleak honakoak dira

Realeko 10 motxilen irabazleak

Francisca Arabaolaza Alzelai
(Elgeta)
Bixente Iñurrategi Pagaldai
(Eskoriatza)
Luis Maria Muruamendiaraz Bastarrika
(Arrasate)
Gurutz Orbe Narvaez
(Bergara)
Felix Agirre Aranguren
(Antzuola)
Patxi Osa Aldekoa
(Bergara)
Aitor Oregi Labaien
(Bergara)
Miren Rodriguez Alfonso
(Arrasate)
Jon Suinaga Landa
(Bergara)
Jose Ignacio Uribe Uriarte
(Aretxabaleta)

Realeko 10 txalekoren irabazleak

Esteban Abaunz Aiastui
(Oñati)
Francisco Javier Mauri Bilbao
(Aramaio)
Jose Antonio Amundarain Arana
(Oñati)
Juan Bautista Aranzabal Mendizabal
(Oñati)
Javier Armendia Martinez
(Arrasate)
Izaskun Caballero Ramirez
(Arrasate)
Azucena Cardenal
(Aretxabaleta)
Miguel Etxaniz Zugasti
(Bergara)
Loli Forkada Idigoras
(Oñati)
Itxaro Gallastegi Zubizarreta
(Bergara)

Sariak jasotzeko pasa zaitezte honako egoitzetatik,
astelehenetik egubakoitzera 09:00-13:00 / 14:30-18:30

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:
GOIENKARIA
Irizar Jauregia – Barrenkale 33
BERGARA

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 – 1. Solairua – 5. Atea (Saiolan eraikina)
ARRASATE

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpideduna izateagatik, astero hainbat **opari** jaso ahal izango dituzu.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA,
urte osoko harpidetza,
35 euroren truke (902 36 38 51)



> ZIRKUA
Richards Bros zirkuak 'Dreams' ikuskizuna egin du Arrasaten > 24



> ERAKUSKETAK
Erakusketa bat zabaldu dute, eta beste askok zabalik diraute > 26

> JOKIN ANTZIA
Arlo askotan ezagutzen dugu Jokin Antxia: Atzegi elkarteko kide, txistulari... Gizon lanpetua da aretxabaletar hori, baina aste bukaeraz gozaten ere badaki > 27



Anthony Blake > Pentsamenduen magoa

"Egiten dudana ez da sinesteko; ikusi, entretenitu eta ondo pasatzeko da"

EDURNE BURGAÑA > ELGETA

Anthony Blake Elgetako Espaloian egon zen joan den zapatuan. Sinismenak sinismen, guztiak aho zabalik utzi zituen bi orduko emanaldian egindako trikimailuekin. Urtebete barru, berriro bueltatuko dela *mehatxatu* du. Eta ez ahaztu: irakurri eta bizi izango duzun guztia zure irudimenaren fruitua da. Ez eman buelta gehiago.

Zer moduz joan zen herenegun-go emanaldia?

Oso ona izan zen, mundiala. Ezin zitekeen hobeto egon. Espaloia bete-bete eginda zegoen, uste dut pertsona bat bera gehiago ere ez zela sartzen; ia-ia 500 sartu ziren bertan herenegun. Gainera, esan didatenez, sarrerak aste-bete lehenago agortu ziren; horrelako zerbait jakiteak poz handia ematen du.

Beldurrik ez hainbeste jenderen aurrean?

Konpromiso handia da hainbeste jende han egotea zuri begira, astebete lehenago sarrerak erosi izana, eta zain egotea ni ikusteko. Pentsa, sarreratxo bat neukan prestatuta emanaldia hasteko, baina sartu ordurako jendea txaloka hasi zen, eta azkenean ez nuen prestatutakoa egin; txaloak amaitu zirenean hasi nintzen agurrarekin.

Ez da Elgetan egon zaren lehenengo aldia.

Aurrez egon ginenean ere oso ondo egon zen emanaldia, eta horregatik bueltatu naiz berriro. Bigarren hau, oraindik eta onago izan da. Eta datorren urtean ere etorriko naiz, baina eguna zehaztu barik daukat.

Zer moduko ikusleak daude hemen?

Oso onak dira. Ni Asturiaskoa naiz, eta Euskal Herrira etorzen naizen bakoitzean, etxera bueltatzea bezala izaten da. Etxera bueltatzea, gainera, zentzu guztietan: pasaia, koloreak, usainak, zapoak, tenperatura, hotzak, beroak... Kurioso da baina, norabaitera joan eta ondo hartzen zaituztenean, harrera ona jasotzen duzunean, berriro

leku horretara bueltatzean, etxera bueltatzea bezala izaten da.

Nola lortzen duzu egiten duzun guztia egitea?

Kontu askorekin. Lana egin behar da, ikasi ere bai, eta, batez ere, maitasuna jarrita. Jendeak ondo pasatzen du, ni neu ere ondo pasatzen egoten naizelako taula gainean. Gustura nagoenean, errazagoa da jendearengana heletzea; komunikazioa egoten da, eta jendeak erreakzionatu egiten du.

Ordu asko sartzen dituzu entseguak egiten?

Eguna ordutan banatuz gero, lau bat irakurtzen ematen ditut; beste pare bat edo hiru, entseguak egiteko; eta beste hainbeste, gauzak jaso eta materialak bilatzeko. Erabiltzen ditudan materialak egunero erabiltzen direnak dira, beraz, buruari bueltak ematen dizkiot jendearekin konektatzeko.

Pentsamenduen magoa zarela diozu.

Besteen pentsamenduekin magia egiten dut. *Mentalista* hitza erditik kendu nuen, kartak botatzen dituztenek edo igarleek *mentalista* terminoa erabiltzen zutelako. Beraz, horiekin guztiekin nahasten nindutela ikusita, neure burua hortik bereiztea erabaki nuen. Igarleen teknika horiek ez dute inongo fundamenturik. Ez dago oinarri zientifikorik horretarako. Igarleen metodoak jolas bat dira.

Nola lortzen duzu pentsamenduekin konektatzea?

Teknika ezberdin asko batera erabili behar dira konexioa lortzeko. Ez-ahozko komunikazioa, begiratzea, estatistika... Faktore asko daude laguntzeko. Baina, neurri handi batean, ohitura animaliak gara, eta ni hor egoten naiz begira, *voyeur* baten moduan. Jokaerak ikusita, ondorioak ateratzen ditut.

Teknika horiek nondik jaso dituzu?

Laguntzen duten liburuak daude, baina, orokorrean, autodidaktak gara nire belaualdiko magoak. Liburuak erosi, iraku-



Anthony Blake Elgetan egon da asteburu honetan.

JOSETXO ARANTZABAL

DIBERTITZEN

"Jendeak ondo pasatzen du, ni neu ere ondo pasatzen egoten naizelako"

ESPERIENTZIA

"Nik egiten dudana zazpi urteko haur batek egin dezake, 20 urteko esperientziarekin"

rri, eta neure interpretazioa ematen diozu, eta gero, ea funtzionatzen duen. Gero, baliteke denbora luzean ariketa egiten era batera egon izana, eta beste mago batekin elkartu eta hark era ezberdin batean egitea; eta konturnatu, tarte horretan, saioa gaizki egiten egon naizela. Nire berdina egiten duen batekin batzean, zuzentzeko aukerak egoten dira, baina bestela, zuk zeuk egin behar du guztia norberak.

Eta zuk egiten duzuna egiten duen beste inor badago?

Espanian, hiru daude: Kataluniako bat, Extremadurako beste bat, eta Madrilgoa, hirugarrena. Gehiagorik ez. Baina, egia esan behar bada, nik daukadan oihartzuna daukan besterik ez dago.

Egia esan, errespetua sortzen duzu...

Beti galdetzen diot neure buruari, pentsamenduen magia beharrean, kartetara aritu izan banintz, jendeak ez ote lukeen gauza bera sentituko. Kontua da, teorian, nik jendearen pentsamenduak jakin ditzakedala, eta horrek beldurdu egiten duela jendea; badaezpada, ez pentsatzen saiatzen dira nire aurrean. Baina beti esaten dut gauza bera: lasai egon, horretaz ez dut hitz egingo-eta. Zure sekretuak ondo gordeko ditut.

Dendara joan eta liburuak erosten duen edonor izan daiteke pentsamenduen magoa?

Nik ezagutu ez nuen maisu bikain bat eduki nuen. Idazten zuen guztia irakurri nuen. Eta zera zioen: "Nik egiten dudana zazpi urteko haur batek egin dezake, 20 urteko esperientziarekin". Nik gauza bera esango dut.

Batzuk ez dute sinesten magia kontuetan...

Arrazoia dutela esango nieke, beti zalantzan jartzeko egiten dudana, ez daukalako oinarri eta fundamenturik. Eta botere paranormalak ditudala pentsatzen dutenei ere, gauza bera. Zertarako hasi eztabaidan? Nik egiten dudana ez da sinesteko; ikusteko, entrenituzeko eta ondo pasatzeko da.

Baina beti ez da ondo pasatzen.

Gauza batzuek beldurra ematen dute, baina hori ere ikusizunaren zati bat da. Adibide bat jartzeagatik, parkera joan eta beldurrezko barraka gustatu ez arren, bertan ibiltzen gara. Bada-kigu gaizki pasatuko dugula, eta horrek nolabaiteko morboa sortzen du. Baina guztia kontrolpean dago. Nirekin, gauza bera gertatzen da. Ez dute ihes egiten gauzek.

IKUSKIZUNA > RICHARDS BROS ZIRKUA

Ametsak egi bihurtzeko aukera dagoela erakutsi dute Richards Bros zirkukoek

Zahar eta gazte bildu da Arrasaten egon den ikuskizunean, barre algarak bota eta ondo pasatzeko

Animaliarik eta aurkezlerik gabeko zirkua da Richards Bros: ez dute horien beharrik izan

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Richards Bros Zirkua Arrasaten egon da asteburu honetan euren ikuskizunarekin: *Dreams*. Berria da zirkua, urte bakarra dauka oraindik, eta sortzaileak Monteiro anaiak dira: Sandro eta Marco. Nongoak diren galdetuta, Sandrok mundukoak direla dio. Azken finean, ez daukate etxe finko bat. Euren etxea, eta herri mugikorra-edo, zirkua da.

"Ez zen lan erraza izan hasia. Azken finean, diruaren inguruan mugitzen da egungo gizartea, eta zirku duin bat egiteko diru asko behar da", azaldu du Sandrok. "Baina, maitasunez eta gustuz egindako gauzek minik ez dute ematen", gehitu du. Odolean daramate artista izatearen kontua bi anaiek, eta ezin dute ekidin bertan jarraitzea. "Marcoren alabak ere zirkuan bizi dira gurekin, eta gurasoek ikasketak egin eta beste lanen bat topatzeko esaten diete, zirkuko bizitza gogorra delako, baina neskatoek ere barruan daramate artista sena", dio Sandrok.

'DREAMS'

Munduan zehar dauden zirku askotan lan egiten zuten lehen Monteiro anaiek, Alemanian, Italian, Frantzian... Izan ere, munduko herrialde guztietan dago zirku bat. Eta zirku munduan, hizkuntza unibertsal bi erabiltzen direla azaldu du Sandrok: ingelesa eta italiarra. Eta bi anaiek ingelesa ez badakite ere, italiaraz, espainolez eta portugesez hitz egiten dute.

Azkenean euren izango zen zirkua sortzea erabaki zuten. Bi anaiairen proiektua da zirku hau: amets bat. Sortu zutenetik urtebete besterik pasatu ez bada ere, zirkuko bosgarren belaunaldia dira Monteiro anaiek. Zirkuan jaito ziren, eta bertan jarraitzen dute.

Artistek, muntaiarako langileek eta publizistek osatzen dute zirkuko familia, 25-30 bat lagun guztira. Eta elkarrekin ibiltzen dira munduan zehar, ikuskizunarekin ikusleek goza dezaten. Umeak ere badaude tartean, bost



KARPA Richards Bros Zirkua Arrasateko Arruena zelaian egon da pasa den astean. Egubakoitzean hasi ziren ikuskizunak, eta gaur amaitu dira.

EDURNE BURGAÑA



ENTSEGUAK Egunero ariketak egin behar izaten dituzte artistek.

E.B.



ESKOLA Zirkua da euren herria, eta umeedako eskola ere dago.

E.B.

edo sei, eta horiendako eskola bat dago. Kultura Ministerioak babestutako irakasle bat dute, eta denboraldi osoan egoten da eurenkin. Kaleko umeak jolas orduan eta denbora librean futboleko jokatzera edo beste jolas batzuetan aritzera joaten diren bitartean, zirkuko umeek entseguak egiten dituzte.

Baina umeek bakarrik ez. Gainontzeko artistek ere egunero egin behar izaten dituzte euren ariketak. Sandro malabarista da,

eta egunero ordu eta erdi ematen du sasioan egoteko. Lesioak ere egoten dira batzuetan, arriskuak daudelako. Gainera, akrobatek eta antzeko artistek, adin batera iritsitakoan, utzi egin behar izaten dute lana, ez daudelako sasoi onean. Horrelakoetan, zirkuko familian jarraitzeko, pailazo lanetan hasten dira.

Ikuskizun berritzailea da Richards Bros zirkuko eskaintzen duena. Ez dago animaliarik, eta bestalde, pailazo baten isto-

ria kontaktzen dute ikuskizunean. Pailazo bat agertzen da pista garbitzen, eta, nekatuta dagoenez, loak hartzen du. Amets bat dauka pailazoak: argi, kolore eta fantasiaz betetako zirku batean bizi izatea. Baina pailazoak espero ez duena da ametsak egi bihurtzeko daitezkeela batzuetan. Argiak amatatu, eta berriz piztean hasten da kontakizuna. Argi eztanda bat egoten da eta zirkuko ikuskizuna hasten da, ikuskizun dinamikoa.

Ileetatik zintzilik jartzen den emakumea, akrobatak, malabaristak, janzilariak, emanaldi komikoak, pailazoak... Amaitzen du bere ametsa egi bihurtu dela.

Publiko guztiendako ikuskizuna da Monteiro anaiek eskaintzen dutena. Umeei zuzendutako saio batzuk daude, eta barre algarak egiten dituzte, baina helduek ere ondo pasatzen dute. Istorioa amaitzen denean, txalo zaparradak entzuten dira karpan.

“Denok onar dezagula, naturaltasunez, Ionen elbarritasuna”.

Ane, Elgeta.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa**n ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna

Gizarte-Laguntza 3 milioi, mendekotasuna duten pertsonentzako proiektuak abian jartzeko

Elkartasuna

Hezkuntza

Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura

Aisialdia

Ingurumena



ERAKUSKETAK > ESKAINTZA ZABALA DEBAGOIENEAN

Arrasateko Harresi aretoan 'berriz b' erakusketa inauguratu zuten atzo

Yera Sanchez eta Ander Lauzirikaren beharrak daude bertan: eskultura, pintura eta argazkiak

Eskualdean, aukera gehiago daude: eskultura, argazki eta margo erakusketak daude zabalik

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Arrasateko Harresi aretoan, arte erakusketa inauguratu zuten atzo. Yera Sanchez eta Ander Lauzirikaren artelanak daude bertan ikusgai. Yera Sanchezek azaldu duenez, "denetarik dago bertan: argazkiak, pintura eta eskultura, 10 lanetik gora". Ildo nagusizat errepikapena hartu dutela ere zehaztu du. Otsailaren 25era arte egongo da zabalik, astelehenetik barikura, 18:00etatik 20:00etara, eta zapatu eta jai-gunetan, 17:00etatik 20:00etara.

...ETA GEHIAGO

Baina Arrasatekoa ez da ikusgai dagoen erakusketa bakarra. Debagoienez aukera zabala dago artelan ezberdinak ikusteko. Bergaran bertan, adibidez, Aroztegi aretoan, Jose Angel Areta Goñi *Juxe*-ren argazki erakusketa dago zabalik otsailaren 2tik. *Amazoniako oihanetik Pazifikora* izenburua duen argazki erakusketa da berau, eta otsailaren 25era arte egongo da bisitatzeko aukera.

Bergaran jarraituta, Nahikari tabernan, otsailean, Iraia

Artzamendiren erakusketa dago. Artista arrasatearraren 11 margo daude bertan. Formatu txiki eta ertainekoak dira. Sei urte zituela hasi zen margotzen Artzamendi, eta Arte Ederrak ikasi ditu Bilbon. Gainera, 2006an, bere marrazkiak biltzen dituen liburua kaleratu zuen, eta bi erakusketa egin ditu: bata Arrasateko Harresin, eta bestea, Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Grabatua, estanzazioa eta serigrafian sartzen ari da, baina eskura etortzen zaionarekin esperimentatzeko aukera ez du galtzen.

Eskultura gogoko duenak Oñatiko kultur etxean dauka aukera aparta. Otsailaren 25era arte, Jose Luis Gonzalez santurtziarraren obra dago bertan. Egutero, 18:30etik 20:30era bitartean egoten da zabalik.

Eta Eskoriatzan, buztina eta sua. Baina horretarako, pixka bat itxaron beharko da oraindik, hilaren 23an hasiko da-eta Ibarraundin. Udalak 2005ean Bergarako Bittoriano Larrañagaren zeramika bilduma bat eskuratu zuen, eta horren zati bat ikusteko aukera egongo da.



Yera Sanchez Harresi aretoan.

JOSETXO ARANTZABAL



Jose Luis Gonzalezen eskultura.

JOSETXO ARANTZABAL



Juxe-ren argazkiak, Aroztegin.

I.A.

MUSIKA > PIANOA

Arrasateko piano ikasleak Andoainera doaz

Andoaingo piano jaialdia hilaren 24an eta 25ean ospatuko da

E. B. > ARRASATE

Arrasate Musikaleko piano ikasleek otsailaren 24ean eta 25ean Andoainean ospatuko duten piano jaialdian parte hartuko dutela jakinarazi dute musika eskolako arduradunek.

BEROKETA SAIOA

Ikasle mordo batek parte hartuko du Andoainean izango den jaialdian, eta hiru kategoriatan banatuko dituzte.

Baina jaialdirako oraindik tartea geratzen da, eta bitartean, ez dira geldirik egon bergararrak. Edorta Ayastuy ekintzen arduradunak azaldu duenez, "jaialdia prestatzeko eta beroketa gisa, pianoko irakasleak diren Isabella Blezien eta Rakel Hernandezek kontzertu bat presta-

tu zuten pasa den barikurako". 18:30ean izan zen musika eskolan, eta Andoaingo jaialdian parte hartuko duten pianistak aritu ziren bertan.

Ayastuyren ustetan, "kontzertu interesgarria izan zen pasa den barikurako". Gainera, Bergarako piano joleez gain, Eskoriatzako musika eskolako ikasle batek ere parte hartu zuen. Aitziber Eraña izan zen, eta gonbidatu gisa aritu zen bertan.

ARATUSTEAK

Bestetik, Aratusteetara begira, bi ekintza antolatu dituzte musika ikasleek: hilaren 16an, musika eskolan kontzertua, denak moztortuta daudela; eta 20an, martitzena, eskolako bandaren eta balletaren kalejira.



IKASLEAK Arrasate Musikaleko piano ikasleak, eskolan.

GOIENKARIA

ASTEBURUA...

Jokin Antxiarekin

Asteburuetakoko tarte apurretan, kirola egitea du gustuko, mendia eta bizikleta

Asteburuak asko aldatu zaizkiola dio Antxiak: lehen, seme-alaben jarraitzailea zen; orain, beretako tartea dauka

Kirola egitea benetan du gustuko Jokin Antxiak, baina, denborarekin, kirol mota aldatzen joan dela azaldu du

EDURNE BURGAÑA > ARETXABALETAK
Jokin Antxia aretxabaletarra, bere beharra egiteaz gainera, Aretxabaletako Kirol Elkarteko (UDA) kidea, Atzegiko Debagoieneko arduraduna eta txistularia da. Eta horretan aritzen da asteburuetan zein aste barruan. Baina ez da egiten duen bakarra; denbora librean daukanean, kirola egitea gustatzen zaio, berdin mendira joan edo bizikletan ibili.

Asteburuetan ez dauzka, baina, ordu konkretuak zehaztuta bi kirol horiek egiteko. "Gauza berberak egiten ditut, baina ez ordena konkretu batean. Kontua da, batetik, familia handia dela gurea, senide asko gara eta beti daukagu ospakizunen bat. Gainera, txistua ere jotzen dut, eta adimen urritasuna duten Atzegiko lagunekin ere beste konpromiso batzuk edukitzen ditut. Beraz, asteburu gutxi ditut eginbeharrigabe", azaldu du Antxiak. Baina beti ateratzen du tarteren bat, "zapatu goizean, edo arratsaldean, edo domekan ere tarteren bat ateratzen dut nik nahi dudana egiteko. Normalean, mendi buelta edo bizikletan bueltaren bat izaten da. Azken finean, zerbait egin gorpuzta astintzeko".

Kirolzalea da Jokin Antxia, eta era askotakoak, gainera: egiteko, eta ikusteko zein antolatzeko. Baina beti ez du kirol berbera eduki gustuko. "Orain, ia-ia 50 urterekin, gustatu baino gehiago, gai izan behar zara kirol mota bat egiteko. Aurreko urteetan, futbitoan ibili izan naiz, eta ari-ri-ri ere bai. Baina adina aurrera joan ahala, ohiturak aldatu ditut", argitu du. "Kontua da egiten duzun horretan gustura egotea", azpimarratu du.

MUSIKA ZALETASUNA

Zapatu-domeketan, txistua jotzea ere tokatzen zaio aretxabaletarrari. Baina hori maiatz eta ekainean



MENDIAN Denbora librean daukanean, mendi bueltak egitea gustatzen zaio Jokin Antxiari.

GOIENKARIA

Lagunak alde ez direla utzi behar, eta harremanak zaintzen ditu

Asteburua, batzuekiko, zapatua eta domeka den bitartean, Jokin Antxiarendako, barikuetan hasten da. "Asko gustatzen zait lagunekin harremana jarraitzea. Hori horrela izanda, asteburuetan eurekin txikiteoa egiten saiatzen naiz, horretarako tar-

tea hartzen dut, bariku arratsaldean edo iluntze partean ezin bada, zapatu arratsaldean. Lagunekin buelta bat egin, eta gauzetaz enteratzea gustatzen zait. Harremanak asko zaindu behar dira, eta, horrela, ohitura onei eusten diegu".

an izaten da. "Lauzpabost aste bukaera izaten dira, domeka goizak. Inguruko herrietara joaten gara dantzariekin: Bergara, Soraluze, Arrasate... Oraingo asteburuan ere, Santa Agedako mutilekin ibili gara. Garai kontua izaten da: Gabonak, Santa Ageda... sasoi bakoitzean, gauza ezberdinak egiten ditugu".

Nolako egurra, halako ezpala. Izan ere, semea eta alaba dauka Antxiak, eta hauek ere aitaren zaletasunak hartu dituzte. "Beti saiatu naiz kirolean aritu zitezen, eta uste dut eskertzen dutela zaletasuna transmititu izana: bai kirolarena eta baita musikarena ere", dio Antxiak.

ALDAKETAK

Baina asteburuak asko aldatu zaizkiola ere adierazi du Jokin Antxiak: "Kattalinekin 18 urte egin ditu eta Martinek 20, eta nire aste bukaerak euren aste bukaerak izan dira orain gutxira arte: Martinek pilotan egin behar bazuen, pilotara, eta futbola baldin bazeukan, futbolera. Kattalinekin, berdin: antzerkia edukiz gero, neu ere antzerkera, eta futbolekin jokatu behar bazuen, ba futbolera. Orduan, euren jarraitzaile bat nintzen". Umeen gerizpea izate-tik, berriro ere gauzak egiteko aukera daukala esan du. "Azken bi urteetako kontua da hau: emaztea eta biok asteburua geure gauzekin betetzen hasi gara".

Aste bukaera honetan ere, bazuten zer ospatu Antxia familian. "Aitaginarrebak 86 urte bete ditu, eta bazkaria eduki dugu domekan. Arratsaldean, UDAk jokatu zuen preferente mailan, baina ez nintzen ailegatu. 16:30ean zen partidua; bazkari batetik irteteko, azkarregi iruditzen zitzaidan. Baina bestela, etxean jokatzeko duten guztietan, zelaira joatea gustatzen zait. Mutilak animatu eta ondo egoten naiz", dio aretxabaletar honek.

Futbolera iritsi ez bazen ere, arratsaldean beste zeregin bat eduki zuen Antxiak: "19:00etan Santa Ageda mutilekin txistua jotzen ibili nintzen Herriko plazan", kontatzen digu.

Horiek, domekako kontuak. Zapatu goizean, konpromiso bat zeukan, eta bertan ordubete egon eta gero, errekaduak egin zituen. "Etxera ailegatu eta bazkaria ere neuk egin nuen", kontatu du UDAkoak. Etxeko lanetan ere, aldaketa egon dela argitu du: "Umeak txikiagoak zirenean, etxeko lanak egiteko emakume bat geneukan, baina handi egin dira, eta orain ez garenez euren atzetik ibili behar, geuk egiten ditugu etxean egiteko dauden behar guztiak".

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Graduondokoak.** La Caixa Fundazioa. Alemanian, Frantzia edo Espainian graduondoko ikasketak egin nahi dituzten lizentziadunei zuzenduta. Epea: apirilak 13.

LANA

> **Irakasleak.** Legazpiko Udala. Legazpiko Udal Euskaltegirako lan-poltsa bat sortzeko lehiaketa-oposizioa. Epea: otsailaren 19a.

> **Informatikaria eta udaltzainak.** Bergarako Udala. Informatikari bat eta bi udaltzain kontratatzeko oposizio deialdi irekia. Epea: otsailaren 22a.

> **Gizarte langilea eta arkitekto teknikoa.** Hondarribiko Udala. Gizarte langile bat eta arkitekto tekniko bat aukeratzeko oposizio-lehiaketa. Epea: otsailaren 26a.

LEHIKETAK

> **Kartel lehiaketa.** Arrasateko Udala. 2007ko martxoaren 8ko kartelen lehiaketa. Epea: Otsailaren 16a.

GAZTE IKASTAROAK

> **Komiki tailerra, gaur egungo dantza, txalaparta eta perkusioa.** Otsailetik aurrera. Izena emateko www.gaztebulegoa.com webgunera jo.

BILTZARRA

> **Eskubideak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Haur, nerabe eta gazteei buruzko I. Biltzarra: Herritar eskubidedunak. 2007ko martxoaren 6an eta 7an Kursaal.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euska.net

OÑATI KO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoan, 4. solairua. Bi logela, egongela, bainugela eta ganbara ditu. Eguzkitsua eta berritua. 639 58 13 83.

Arrasate. Etxebizitza salgai Otarola 2an. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun. Bizi izatera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. San Andresen, Doctor Bañez kalean. 75 metro koadro. Berrikuntza beharrean. 230.000 euro. 629 10 41 31.

Arrasate. Zigorrolan etxebizitza salgai. 665 73 25 74.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia eta trasteleku. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Arrasate Grupo San Juanen. 60 m². Ganbara, igogailua eta berogailua. 606 25 92 80.

Bergara. Etxebizitza salgai Tokiederren. 607 27 20 23.

Bergara. Baserria salgai. 260 m²-ko tailerrarekin. Garajea eta 300 m²-ko lursaila. 660 04 58 60.

Bergara. Duplex berria salgai. Igogailuarekin. Garaje itxia aukeran. 943 53 26 81.

Bergara. Etxea salgai Boni Lascurainen. Hiru logela, 90 m². Eguzkitsua. Ganbarekin. 628 26 65 77.

Bergara. Etxea salgai Labegarietan. Berritua. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. 635 71 04 55.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua, ganbara eta berogailuarekin. 943 28 76 36.

Bergara. Labegarietan. Eguzkitsua. Etxetresna elektrikoek 6 hilabeteko bermea. 635 71 04 55.

Bergara. San Pedro kalean etxea salgai. 605 73 37 39.

Bergara. Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldia, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igogailua. Balkoi ederra. Garajea aukeran. 270.455 euro. 664 73 49 60.

Bergara. Zabalotegi. 50 m². Bi logela, egongela. Sotua 14 m². Berritua. 635 72 67 11.

Gasteiz. Bi logela, egongela, sukaldia eta komun bat. Igogailua eta ganbara. Hiru urte direla guztiz berritua. Solairu altua eta argitsua. Berogailu indibiduala. Jantzieta. Hiri erdian (Poliklinika eta Gasteiz hiribidea bitartean). 629 75 54 22.

Mungia. Etxea salgai herri erdian. 80 m². Garajearekin. 616 48 21 21.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorenzo auzoan. Saloi-sukal-

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

dea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. San Lorentzen etxea salgai. Hiru logela. Ganbara eta garajea. 656 74 80 47.

Soraluze. 35 metro koadro. Logela bat, egongela txikia, sukaldia eta komun. 72.000 euro. 696 72 46 45.

102. EROSI

Oñati etxebizitza erosiko nuke. 619 88 88 72.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 649 54 66 58.

Benidorm. Apartamentua garajearekin errentan ematen da. 666 67 06 94.

Vera (Almería). Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzieta (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bi gazte langilek etxea hartuko lukete errentan. 616 00 65 91.

Arrasate. Emakume batek etxea hartuko luke errentan semearekin bizitzeko. 629 44 66 61.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 650 96 23 08.

Arrasateko langile gazte batek etxebizitza txiki edo apartamentutxo bat errentan hartuko luke. 639 96 30 98.

Debagoiena. Etxebizitza hartuko genduke errentan. 943 53 22 30.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Ikasle bati gela bat alokatzeko prest. Etxe handia eta erosoa eta unibertsitate bitartean. 699 89 75 20.

Neska bat behar da, etxebizitza osatzeko. 617 44 85 19.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. San Andres auzoan,

42 m²-ko garajea salgai. 636 34 77 08.

Bergara. Erdialdean. Burdiñaten. 21 metro koadro. 23.000 euro. 664 73 49 60.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia errentan ematen da Lausitta 20an. 639 96 62 92.

Arrasate. Garaje itxia, erdialdean. 685 72 15 86.

Arrasate. Garaje errentan ematen da Uarkapen. 605 77 52 75.

Arrasate. Zerrajerera kalean garaje errentan ematen da. 635 73 27 74.

Bergara. Auto txikiendako. Burdiñaten dago. 943 76 13 33.

Bergara. Ibargarain garajea errentan. 652 72 32 81.

4/ LANA

401. ESKAITZAK

Aretxabaleta. 6 eta 9 urte arteko umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume baten bila. Telefonoa: 649 35 51 01.

Aretxabaleta. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko... (Ana Maria). 648 86 09 41.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu elkarteetan, behebarruetan... garbiketa lanak egiteko. 638 44 81 27.

Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Urte askotako esperientziaduna. 943 08 12 80.

Arrasate. Emakumea prest orduka edo asteburuetan lan egiteko. Garbiketa lanak egiteko nitzuke edo adineko pertsonak zaindu. 650 96 23 08.

Arrasate. Emakumezkoa prest etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 685 77 66 21.

Bergara. Atariak garbitzeko emakumea gertu. 675 70 50 43.

Debagoiena. Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke, gause zein egunez. Eskarmentu han-

dia daukat. Erreferentziak eskatzeko aukera. 686 80 56 59.

Debagoiena. Emakume bat lan egiteko gertu: zerbitzari, umeak edo pertsona helduak zaindu... 699 83 07 59.

Debagoiena. Emakume batek umeak eta edadeko pertsonak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 657 71 51 94.

Debagoiena. Neska gaztea lanerako prest. Zerbitzari, garbiketa lanak egin edo umeak zainduko nitzuke. 676 82 24 31.

Debagoiena. Neska prest gastronomia elkartean edo etxeko garbitzeko. (Maite). 696 88 93 73.

Debagoiena. Umeak zaintzeko eta atariak garbitzeko prest. Nerea. 663 71 06 65.

Emakumea gertu Arrasaten edo Aretxabaletan adineko pertsonak zaintzeko (eskarmentu handia dauka) edo orduka garbiketa lanak egiteko. 629 94 15 72 edo 695 74 05 54.

Instalatzaila elektriko baimenduak edozein lan egiteko du elektrizitatean. Ekonomikoa. 628 76 46 86.

Neska gertu Arrasaten edo Bergaran orduka garbiketa lanak egiteko. 657 71 51 94.

Neska euskalduna eta esperientziaduna sukaldian edo zerbitzari lanetan astean zehar lan egiteko gertu. 943 78 11 96.

Neska brasildarrak etxeko lanak egin edo edadeko pertsonak zainduko lituzke. 638 87 15 83.

Neska prest lan egiteko. Barneko langile ere jardungo nuke etxe batean. 618 44 59 77.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. 10 urteko neskatila batek etxean eskola partikularrak jasotzeko irakaslea behar du. 943 76 21 79.

502. EMAN

Arrasate. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 77 16 90.

Bergara. Eskola partikularrak emango nitzuke. Irakasle titulua dut. 636 16 30 10.

Bergara. Matematika eta fisika

eskolak ematen ditut. 696 38 10 07.

Bergara. Neska lizentziaduna LHko edozein ikasgai emateko prest. Telefonoa: 669 07 08 18.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Aprilia Climber motorra salgai. Egoera onean. 1.200 euro. 690 38 22 81.

Audi A3 Sportback 2.0 Tdi salgai. 2005ean erositua. 29.000 km. Estra ugari: S-Line pake-eta, bi-xenon, Tempomat... Oso ondo dago. Telefonoa: 635 73 72 07.

Autokarabana salgai. Telefonoa: 658 72 11 49.

BMW Compact. Diesela. 150 ZP. 43.000 km. Oso egoera onean dago. 687 73 68 87.

Citroen C3 HDI 1.4 autoa salgai. 42.000 kilometro. 2003ko martxoak. Aire girotua. 7500 euro. 685 71 80 66.

Ford Escort autoa salgai. SS-AD matrikula. 18 urte ditu. Ondo zainduta dago. 500 euro. 686 74 01 95.

Husquarna 250 WR motorra salgai. 1993koa. Matrikulatuta. Egoera onean. 1.500 euro. 645 72 75 54.

Opel Astra. 1.7 TDI, 75 zaldi, 88.000 km. Telefonoa: 647 60 68 88.

Opel Zafira salgai. 2004koa. Diesela. Egoera onean. Aire girogailua. Aleazio haguak. ESP. 100 zaldi-potentzia. 629 56 29 25.

Peugeot 206 1.9. XR. Diesela. Hiru ate. 2002koa. 65.000 kilometro. Beti garajea. Lau gurpilak negukoak. 5.500 euro. Telefonoa: 655 70 16 43.

Renault Clio 1.4 Sport autoa salgai. 1993koa. 1.500 euro. 619 91 49 13.

Volkswagen Sharan 1.8 Turbo. Gasolinazkoa. Azterketa teknikoan liburuxka dauka. 1999koa. 121.000 km. Oso egoera onean. 7.500 euro. Telefonoa: 645 73 97 69.

603. ALOKATU

Autokarabana alokairuan. Sei

lagunendako egokituta. Telefonoa: 658 72 11 49.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Cocker beltza. Bi hilabete. 943 77 20 58.

703. EMAN

Setter arrazako txakur eme zuri-gorria emango nuke opari. 607 31 18 90.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Antzinako altzariak salgai. Berritu beharra dute. Leintz Gatzagan. 615 74 13 47.

Bergara. Hektarea bateko lursaila salgai. Oso egokia bordaxto bat egiteko. Telefonoa: 678 72 75 72.

Bi ohe. 90 cm-ko bi ohe, koltxoiak eta somierak. 300 euro. Estreintu gabe. Telefonoa: 647 60 68 88.

Sony telebista salgai. 32 hazbete (pulgada). Aluminiozko eta kristalezko altzariarekin. Prezio interesgarria. Telefonoa: 607 63 48 88.

802. EROSI

Esku-oheta (kamilla). Bigarren eskuo bat erosiko nuke. (Jaione). 616 39 06 49.

807. AURKITU

Bi betaurreko graduatu agertu dira Antzuolako udaltxean. Emakumezkoenak dira. Udaltxean bertan galdetu.

Ezkontza-eratzuna aurkitu dute Aretxabaletako Gurea tabernan. Hangaldetu. Telefonoa: 943 79 20 64.

Poltzikoko telefonoa aurkitu nuen domekan Aizorrotzen. 667 33 68 38.

808. BESTELAKOAK

Oñati. 9-10 laguneko koadrila batek beste koadrila batekin Astigarragako sagardotegira joateko autobusa konpartitu nahi luke. Eguna: martxoak 10. Bazkaria izango litzateke. Telefonoa: 650 62 20 32.

San Blas auzoan dagoen elkarreko bazkide izan nahi baduzu, deiezadazu. Aukera ona. Trenbidetik gertu. Telefonoa: 626 19 14 85.

Otsailaren 12a:
118. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 12, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! ASTELEHENEN GOIENKARIA-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

118. zozketako saridunak



ECRON GC-800

Micro kate bat

• Arantxa Alberdi Iturrino (Antzuola)

Baldintzak

- ASTELEHENEN GOIENKARIA-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

35 euro
2007 bukaera arte.

ASTELEHENEN
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 12



> 'Etorki(zu)na eskolan' erreportajea 21:45

Etorkinen uholeak gure ikastetxeetan izan duen eragina aztertuko dute gaur. Amagoia Lasagabaster kazetariak aurkeztuta.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 Iragana gogoratu.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Klip@.
16:15 Bizitegia.
16:45 Albisteak.
17:15 Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta Lur.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportaia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Harmaillatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ikusmira.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 13



> Nafarroa aldeko Aratusteak GOITBn ikusgai 21:45

Ttipi-Ttapa telebista ekoiztutako *Inauteriak 2007* saioa ikusteko aukera duzue gaur. Ituren eta Zubietako Inauterietan hartutako irudiak.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmaillatik.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Didjeridu.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak
16:15 Ikusmira
16:45 Albisteak.
17:15 Nonochan.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Klip@.
18:30 Bizitegia.
18:45 Albisteak.
19:15 Harmaillatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Iturenge inauteriak.
22:15 Harmaillatik.
22:45 Berriak.
23:15 Iragana gogoratu.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Harmaillatik.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 14



> 'Berbaire': Ahotsak plataforma 21:45

Jone Goirizelaia, Gema Gonzalez de Txabarri, Onintza Lasa, Duñike Agirrezabalaga, Ainhoa Aznara eta Aintzane Ezenarroekin (argazkian).

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Iturenge inauteriak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta lur
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmaillatik.
18:15 Iragana gogoratu.
18:45 Albisteak.
19:15 Iturenge inauteriak.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Mahai ingurua: Ahotsak.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Mahai ingurua: Ahotsak.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 15



> 'Musikantoi' saioaren estreinaldia gaur 21:45

Euskal musika taldeen bideo klipak, agenda eta elkarrizketak aurkituko dituzue Musikantoi saioan. Ixone Serranok aurkeztuta.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Mahai ingurua: Ahotsak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Teknopolis.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Danbaka.
16:15 Ikusmira
16:45 Albisteak.
17:15 Nonochan.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa.
18:15 Hasiberriak.
18:45 Albisteak.
19:15 Bizitegia-Klip@.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Musikantoi
22:15 Didjeridu.
22:45 Berriak.
23:15 Erreportajea.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 16



> 'Ilunpean', Oihana Elortzarekin 22:15

Euskal Herriko pertsonaia ezagunak hurbiltzen dira astero GOITBko platora. Oihana Elortza kazetariak gidatutako elkarrizketa saioa.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Danbaka-Kerobian.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:00 Hitz bitan
16:45 Albisteak.
17:15 Sherlock Holmes.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Debarri-Bergara.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Iragana gogoratu
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Zorion agurrendako tartea egunero Arrasate Irratian 11:30, 17:00

Egunero daukatzue zorion agurrendako tartea Arrasate Irratian. Bi modu dituzue zorion agurrak bidaltzeko: 943 71 17 31 telefonora deituta edo irratia@goiena.com helbide elektronikora idatzita.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegiak
Pentsaren erreposoa
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurrendako tartea (errep.)


Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.
16:00 Danbaka.
23:00 Danbaka.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.
16:00 Danbaka.
23:00 Danbaka.

gertutik



Mikel Lizarralde Kazetaria

"Patti Smith Victoria Eugenia ikusteko gogoia daukat"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Berria-ko kultura saileko arduraduna da Mikel Lizarralde kazetari bergarra. Aurretik, *Egunkaria*-n ibilitakoa da. Zestoan bizi da eta aita izan da orain gutxi; Unai txikiak nahikoa lan ematen diola aitortu digu. Paperean zein Interneten jarrai dezakezue Lizarralde: ixteko.ordua.com izeneko bloga dauka berria.info/blogak/mikel helbidean.

Kultura sailean, zelako gaiekin disfrutatzen duzu gehien?

Musikarekin. Bestelako gaiak lantzea ere tokatzen zait, baina eroso musikarekin ibiltzen naiz, ezagutzen ditudan talde edo musikarien gaineko elkarrizketak edo erreportajeak egiterakoan, adibidez.

Datozen hilabeteotako hitzorduetatik, zein nabarmenduko zenuke?

Patti Smith etortzeko da Victoria Eugenia antzoki berritura, apirilean. Cohen, Dylan eta beste hainbaten bertsioren diskoarekin dator, eta badaukat hura ikusteko gogoia...

Euskal Herriko musika aretorik gustukoena?

Oso gustura joan izan naiz beti Bilboko Kafe Antzokira, areto gozoa delako eta programazio interesgarria duelako. Garai batean, Bergarako Jamera asko joaten nintzen, baina hango programazioa urrun samar geratzen zait aspaldi. Bestela, sekulako kalitatea duen aretoa da Bergarako. Durangoko Plateruena ere gustatzen zait asko.

Egondako azken kontzertua?

Orain dela aste pare bat edo, Donostiako Gasteszenan, Egian, ikusitakoa: Will Johnson eta Micah P. Hinson. Azken honek folk-rock estiloko musika beroa egiten du, guztiz gomendagarria.

Eta hiru disko gomendatzekotan?

Zaila... Boteprontoan, hauek: Lisabören disko berria, *Ezlekuak*; Neko Case kanadarraren *Fox Confessor Brings The Flood* eta Bob Dylanen azkena, *Modern Times*.

Zure iturrietako batzuk?

Irratian, *Forki* (Herri Irratia) eta Fermin Etxegoien (Euskadi Gaztea); *Entzun* aldizkaria eta kanpoko beste aldizkari batzuk... Ask.

asteko hitzorduak

Kontzertua




BERGARA

> Bergarako Udal Musika Bandaren Inauteri-kontzerturako sarrerak salgai

Otsailaren 16an, egubakoitza, egingo du Udal Musika Bandak ohiko Inauteri kontzertua, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Sarrerak bost euro balio du eta dagoeneko salgai daude Lazkano oinetako dendan eta kultura etxean.

Hitzaldia



OÑATI

> Boliviaren aldaketa politikoaren gaineko hitzaldia, eguaztenean

Evo Morales: de la coca al palacio delako hitzaldia egingo du Albert Noguera adituak. Etzi, eguaztena, izango da hori, 19:30ean, kultura etxeko zinema aretoan. Bolivian izandako aldaketa politikoez arituko da.

Magia saioa



ARETXABALETA

> Helduendako ikuskizuna egingo du Txan magoak egubakoitzean

Kurtzebarri eskolako aretoan egingo du emanaldia Txan mago ezagunak. Egubakoitzean izango da hori, 22:00etan. Umeak aho zabalik lagatzen dituen magoak nagusiak ere txundituko ditu.

kuskuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Aratusteetan,
sardinaren
konkista!

Bigarren astez jarraian, kintoak atera dira **Oñatin**. Auzoz auzo ibili ziren koplatan eta, arratsalde parterako, herrira jaitsi ziren, beste koplak batzuekin jarraitzeko.

Kinto garaia aspaldi pasatua izan arren, gazte garaia gogoratu gura dutenak ere badira. Hala, garai batean Aloña Mendiko eskubaloi taldean ibilitako mutilek, **Basomano taldekoek**, Kopa Txapelketarako taldea atera gura dute. Bost partidu besterik ez direla eta gogotsu daude. Nik esan diet, gura izanez gero, tal-

"Aloña Mendiko Basomano taldekoek Koparako taldea atera gura dute"

deko delegatua izango naizela, baina, badaezpada ere, masajista edo medikuren bat kontratatuzko. Denen beharra izango dute, urteak ez dira alperrik pasatzen-eta!

Herritarren parte-hartzea ezinbesteko izaten da halako ekimenak aurrera ateratzeko. Bada, azkenaldian hainbat herrietako jaiak kolokan daude. Lanerako gogoz dagoen jendearen beharra dago. **Arrasaten**, esaterako, aurten bigarren aldiz, hainbat herritarrek Aratusteak antolatu dituzte. **Sardinaren konkista** egingo dute... harrapatu, berriz, izugarriko legatza.

Aratusteak gainean dira eta, dagoeneko, jantzia prestatzen hasi naiz. Gezurra badi-rudi ere, aurten *guapa* jantzi-ko naiz. Xehetasun gehiago, datorren astelehenean.

hildakoak

• Victoriano Muñoz Garcia.

Arrasaten, otsailaren 4an. 78 urte.

• Jose Maria Azkoaga Aiastui.

Arrasaten, otsailaren 8an. 67 urte.

• Josefa Rodriguez Rodriguez.

Oñatin, otsailaren 8an. 89 urte.

• Imanol Perosterena Txintxurreta.

Oñatin, otsailaren 10ean. 73 urte.

• Isabel Sevillano Ravel.

Eskoriatzan, otsailaren 10ean. 85 urte.

asteburuko albuma



Bertso afaria. Andoni Egaña eta Xabi Paya izan ziren bertsoan, zapatu gauetan, Bergarako Artatse elkartearen afalostean. 100 lagunetik gora elkartu ziren, eta giro polita ipini zuten, eta ez ziren falta izan 18/98 auzian auzipetutako Elkoro eta Arregi herritarren aipamenak. Segidilletan 25 minutuko saioa ere egin zuten.



Zahar Berrikoen poteoa. Bergarako Zahar Berri ekimeneko euskaldun berri eta zaharrek AEKko lagunekin poteoa egin zuten eguenean Arrasaten, euskara ikasgelatik kalera eramanez eta modu naturalean berba egiteko. Urtean hainbat poteo egiten dituzte, eta herritarrek parte har dezaten gura dute.



Quebracho jaiak. Argentinako mugimendu abertzale iraultzaileak da Quebracho. Bertako bi militante gurera etortzeko bidaia ordaintzen laguntzeko jaialdia egin zuten egubakoitzean Arrasaten. DVD eta argazki emanaldia, kontzertua eta disko jartzaileak izan ziren. Ekintza gehiago izango dira laster.



Santa Eskolastika. Elkar Hezi ikastetxeko moja benediktarrek euren zaindaria, Santa Eskolastika, omentzen dute urtero, eta ikasle eta guraso guztiendako ere ospakizun eguna izaten da. Hala egin zuten joan den egubakoitzean. Tradizio bihurtu da ikasleek egiten dituzten antzezlanak. Aretoa lepo bete zen.



Presoei zorianak. Aretxabaletan 40 lagun inguru elkartu ziren egubakoitzean, argazkia atera eta, modu horretan, Zuhaitz Errasti eta Kepa Urria herriko presoak zoriontzeko. Biek ala biek martitzenean, otsailaren 13an, betetzen dituzte urteak. Zuhaitz Errasti Moullins-en, Frantzia, dago preso, eta Andaluziako Puerto I kartzelan, Urria. Zorionakemateaz gain, euren askatasuna ere eskatu zuten elkartu zirenek.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €**.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako
ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

zorion agurrak



BERGARA
Antxon Hernandez
Otsailaren 5ean. Zorionak, txapel-dun! Ondo-ondo pasau eguna ta jarraitxu tripliak sartzen.



BERGARA
Miren Carnicero
Otsailaren 6an urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat. Familia osoaren partetik.



BERGARA
Joseba Carnicero
Otsailaren 6an 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familia osoaren partetik.



ARRASATE
Mikel Agirre
Otsailaren 8an, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



ARAMAIO
Rakel Perez
Otsailaren 8an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, *majisima*. Puerto, Agurne eta *Furra*.



ARRASATE
Naia Ijurra
Otsailaren 8an, 6 urte. Zorionak Izar, Aitor, Josu eta Eiderren partetik.



BERGARA
Maitane Goitia
Otsailaren 9an 2 urtetxo egingo ditu gure potxolik, muxu asko! Askoi maite zaitugu etxeko guztiok.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Leire Mateo
Otsailaren 10ean, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Oxel Vazquez
Otsailaren 10ean, 10 urte. Zorionak anaiaren eta gurasoen partetik.



ZESTOA
Harane Odriozola
Otsailaren 10ean urtetxo bat egingo du. Zorionak etxekoaren partetik!



BERGARA
Nora Iturralde
Otsailaren 10ean 3 urte egingo ditu. Zorionak etxekoaren partetik!




ARETXABALETA
Naroa Urtaza
Otsailaren 11n urtebetetzea. Zorionak etxeko guztien eta Ikerren partetik.



OÑATI
Maren Irazabal
Urtarrilaren 31n bi urte. Zorionak eta muxu handi bat, senideen partetik.



ARRASATE
Aratz Barandiaran
Otsailaren 8an urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat etxekoaren partetik.



jaiotakoak



Nahia Lopez Gomez
Bergara > 3,675 kilo. Otsailaren 5ean. Gurasoak: Irune (Bergara) eta Roberto (Soraluze). Argazkian, ume jaioberria aitarekin eta amarekin.



Julen Crespo Zubia
Bergara > 4,300 kilo. Otsailaren 5ean. Gurasoak: Itsaso (Bergara) eta Jon (Legorreta). Argazkian, haur jaioberria amarekin eta aitarekin.



Elene Loiti Montero
Arrasate > 2,750 kilo. Otsailaren 5ean. Gurasoak: Monika (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, ume jaioberria amaren besoetan lo.



Izaro Urkiza Perez
Arrasate > 3,300 kilo. Otsailaren 6an. Gurasoak: Nerea (Aretxabaleta) eta Juantxu (Otxandio). Argazkian, umea Jouness, Nabil eta amarekin.



Oier Cueva Etxeberriarteun
Oñati > 2,490 kilo. Otsailaren 6an. Gurasoak: Eguzkiñe (Oñati) eta Alfonso (Oñati). Argazkian, ume jaioberria amaren besoetan.



Xabier Gallego Bereziartua
Arrasate > 3,150 kilo. Otsailaren 7an. Gurasoak: Ane (Arrasate) eta Txema (Aretxabaleta). Argazkian, ume jaioberria amarekin agertzen da.



Enaitz Testa Uribetxeberria
Eskoriatza > 3,300 kilo. Otsailaren 8an. Gurasoak: Nagore (Eskoriatza) eta Ruben (Aretxabaleta). Argazkian, ume jaioberria bere kuman lo.



Xabat Arregi Unamuno
Bergara > 3,410 kilo. Otsailaren 9an. Gurasoak: Erkuden (Bergara) eta Xabier (Bergara). Argazkian, haur jaioberria amaren besoetan.



Ane Elkoroberezibar Rivas
Bergara > 3,480 kilo. Otsailaren 11n. Gurasoak: Esmé (Orio) eta Ibon (Bergara). Argazkian, haur jaioberria bere kuman lo agertzen da.



Nahia Aranguren Gallastegi
Bergara > 3,380 kilo. Otsailaren 10ean. Gurasoak: Nuria (Bergara) eta Iñigo (Bergara). Argazkian, ume jaioberria kumatxoan.

BABESLEA



**IKUSI
MAKUSI**

Umeen paradisia

Unai Azkarate > Kilometroak 07ko koordinatzailea

"Eguerdietan, Argiñano ikusten dut egunero"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Unai Azkarate bergarra ez dagel di egoteko mutila. Musikaren zurrinbilatik atera gabe, aurtengo Kilometroak koordinatzen dabil.

Musikaria, margolaria, orain Kilometroak festako koordinatzailea... Artista edo gazte polivalentea zara?

Sortzaile moduan definituko nuke neure burua; burua beti dut martxan gauzak sortzeko.

Zer egingo zenuke musikarik ez dagoen planeta batean biziko bazina?

Ezingo nintzateke han bizi. Dena dela, uste dut ez dela horrelako planetarik egongo unibertsoan. Mota batekoa edo bestekoa, baina musika egongo da guztietan, ziur nago.

Gure ibarrean musika aukera ona egoten da?

Egia da gero eta aukera anitzagoa dagoela, eta hori pozgarria da. Musika mota asko daude, jendeak ezagutu ez arren. Nik batzuetan izaten dut gogoia kontzertu guztietara joateko.

Zer moduz doaz Kilometroak 07 festa antolatze lanak?

Oso ondo doaz, bai. Lantaldeak fin dabilta lanean. Ekonomia taldea ere badabil bere lana egiten eta arropa salmenta ere, adibidez, oso ondo doa.

Noizko antolatu duzue hurrengo ekitaldia?

Otsailaren 23rako. Kontzertua egingo dugu Jam aretoan eta parte hartuko dute hauek: Matx Elgetako bakarlarriak, Arrasateko Radio Wings eta Bergarako Aby-Kem eta Yotox taldeek.

TEST-A

Herria: Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Arte ederrak. **Zaletasunak:** Musika eta pintura, besteak beste. **Bergarako txokorik edo lekurik gustukoena:** Goiko plaza, baina obrak egin aurretik; hantxe ikasi nuen bizikletan ibiltzen. **Musika instrumentu bat:** Armonika. **Asteburu on baterako plana:** Asturias aldean, adibidez, sagardoa edanaz, bide batez. **Gosaltzeko zer?:** Basokada bat Cola Cao kruatsan goxo batekin.

Zertaz moztortuko zara Aratusteetan?

Oraindik ez dakit, azkeneko momentuan pentsatuko dut. Baina gustatzen zait neuk egitea moztorra, ez dut erosten. Lagunei eta ingurukoei gauzak eskatuta egiten dut moztorra.

Nola jarraitzen dituzu eguneroko notiziak?

Egunkariaren bitartez.

Zer ikusten duzu telebistan?

Eguerdietan, adibidez, Karlos Argiñano.

Egiten dituzu etxean bere errezetak?

Ez. Baina gustatzen zait bazkaria prestatzea, eguneroko lana delako, eta berak ikuskizun bihurtzen du. Batzuetan, musikan ere, antzerkoa gertatzen da: taldeak ikuskizun handia egiten badu, onak direla dirudi.

Agorrosinen bainatu zara?

Joan den urtean, bai; aurtentz, ez dut txartela atera. Bestela, iraillean hasten naiz korrika Behobia-Donostiarako.




IKASTOLA Bergarako Aranzadi ikastolan egoten da Unai.

O.E.

www.goiena.net

Otsailean gaude. Aste Santuko oporrak prestatzen hasi zara dagoeneko?



biharamuna

Oier Bolibar

Gauzen zergatia

Ezeguna dena argitzea izan daiteke geroaldi baten ezagutuko dugunaren zai egotea bezain itzaropentsua. Badira nabariak diren sekretuak non ezkutuan mantentzen jarraitzen duten, eta beste batzuk, non lehen aztarnarekin, atsedetik gabe bilatzen jarraitzen ditugun.

Ezjakina denak, aureola magiko baten babesa omen du, baina behinola ezkutuan egoniko errealitate batean barrena murgiltzeak ez dio biziari xarmarik kentzen, gehitu baino. Edo-nork aurki dezake poesia edonon, bilatzeko prest egonez gero.

Oinez hastean, geure buruari, gauzen zergatiari buruz galdetuko bage-




nio, ez genuke aurrerapausorik emango, pauso bakoitzeko galdera berri bat jalgiko bailitzateke, era berean hainbesteri erreskadan deituko zion itauna, amaierarik gabe. Ezagutzaren bilaketak ez baitu etenik.

Zeren ederra da ezagutzen duguna, are politagoa dakusaguna, baina are gehiago oraindik ezezaguna dena. Poesiak, gauzen ezagutza eta zergatia atseginagoa egiten baitu. Horrela iradoki zuen behin **Robert Frostek**, non poema, espresio bide zehatza den, definizioz, ezin dena inoiz behar besteko xehetasunez itzuli.

Ezagutza, gauzen zergatia argitzean sortzen den poesia baita.

eguraldia



MINIMOA
+06

MAXIMOA
+12

Temperaturak behera egingo du. Euria eguneko lehen partean egingo du eta arratsaldean atertu egingo du.

www.euskalmet.euskadi.net

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

